

IPUIÑAK

III

Aaa ZE AMES ZORAGARRIA!



OTAZUA'tar BENITO

IPUIÑAK

III  
ATALA

**Aaa ZE AMES  
ZORAGARRIA!**

EGILEA.- OTAZUA'tar BENITO  
MARRAZKIGILEA.- AÑON'tar ESTIBARIZ

1997

## Aaa ZE AMES ZORAGARRIA!

Orain da milleka eunde urte asko, mende luzaro asko, euren erri-alde, lurraldetan eroen bizitza neketsu, gogorregia eretxirik, euren jaiotze errian eben bizi-bidea baño oba bat lortu naian, eta baita be, batez be gazteak, aldi aretan ain ugari ziran anai arteko borroka zitaletatik igeska, euren egoitzak itxita, utxita, andra-gizon aldra kopurutsu batek beste lurralde onuragarriago baten billa joatea erabagi eban.

Jabe ziran abere, bei-idi, ardi-auntz, zaldi, mando ta astoak batu ebezan, eta etxeko tresna, soiñetako, oiñetako ta oial-zapi guztiak burdi, gurdi ta mandoetan zamaturik, iñolako norabide, non eta zelan izango zan euren bidali ta elmuga jakin barik, noaezean erbesterantz abiatu ziran.

Euren asabakandik oiñordetuak eta euren eguneroko lan gogor, neketsuakaz areagotu ebezan egoitz eta lurrak, an geratu ziran. Erbestetzean leenengo izaten dan gertaera mingarri, saminagarria.

Nekazari talde onen bidalia eurak uste izan eben baño luzeagoa izan zan. Ain-bat lurralde-tan egun batzutan geratu ziran, baiña eurak eta euren abereak elikatzeko toki berezirik ez aurkiturik, erbesteratu talde onen bidalia eurak asmau eben baño luzeago izan zan.

Erbesteratu talde onek, an urrunki asao ikusten ziran mendi-lerro ta muru-aitzak, beste-alderatu nai ebazan.

Urtzoka eritxon gizon sendo, indartsu, deduzkoa txangolarien nagusi, gidaria aukeratu eben. Urtzoka jauna, urte mordoa bere sorbalda ganean izan arren, ondifo gizon buru argi eta sasoikoa iruditen zan.

Bai, orren aitz-erpin ostean ziur lurralde sekulako bat guretzat eta gure ondorentoztat aurkituko dogu. Aurrera ba mutillak!, Urtzoak oiuka bere talde-kideari iñotsen.

Eta alan jazo zan. Urtzokak asmau, amestu eban bezela, arrate, meargune luze, estu batetik igarotean muru-aitz goi areik gaineratuz, euren begien aurrean agertu jaken aran, ibar edatsu zoragarria ikusirik, erbesteratuak sorgortuta, ikusten ebena ames bat balitzake bezela, geratu ziran.

Txangoleriek aran ain eder, ainbeste edertasun, altxor, pitxi gune baten batu, bilduta ikusirik eta lurralde zoragarri a oinperatu ebenean, Atsegintoki-orde bat zala uste izan eben.

Zer diraustazu, irakurle? Ez dala orrenbestera-ko izango... aunditu, bapikatu egiten dodala?... Ba leiteke, baiña, ez. Aran aren, lurralde aren, polit edertasuak azaldu al izateko, bear dan bezela azaltzeko, nire iztegi laburrean itz, berba, egokirik ez dot aurkitzen.

Ara irakurle, zure bekokipeko begiak ixii, ertsi eizuz eta adimen-begiak zentzunez erabilliz, irura, aran edatsu, eze, orlegi bat iruditu eizu. Alde guztietatik, lau aldetatik, mendi-lerro ta muru-aitz, arkaitz izugarriakaz mugatzen dauan lurralde, aran zoragarri bat asmau eizu.

Ipar aldetik mendi-besanga bat osotuz, mendi goi ta mendi-mail lerroak gure Urtzoka erritxua babestan dabe.

Aiztuta izan dot. Urtzoka, erbesteratu talde-ko gidari ta nagusia zan gizon zentzudun aren oroimenez, gure erbesteratuak lurralde, aran eder areri Urtzoka deitzea ereabagi eben.

Ipar-aiza, ekaitz gogor indartsuak eguratsa astintzen dauanean, urtzokatarrak mendi-lerro onetan babesle zintzo bat dabe.

Sortalde, Ekera, eguzki-alde-ko mendiska ta baso lerroak inguraturik, lurralde zoragarri baten eraztuna egifnez, ibar liluragarri bat bere barnean agertuko jatsu.

Sartaldetik, meaka, meargune, estu luze bat. Beratatik, bertatik, arkaitz-erpin batzuk guda-ri zintzo bezela zainduz, ibai urtsu batek milla-ka mendez igarota egindako ibai-ildo batetik saltokari bere urak itxasorantz daroaz.

Ego-aldetik muru-aitz bat, gure ibar polita-ren jagolea da. Arkaitz goi erpintsuak lerrotu-rik, arriarte bitartetan arte ta gurbixak euren janaria dabe.

Mendi-lerro, mendi-besanga ta mendiska baso magaletan mota askotako zugaitzak. Pago, urki, areitz zugaiak, gaztain enbor lodi igaliz aberatsak, urki, kerçix, intxaur, urretz, gurbix eta otabarrak euren ezbardidun lora ta orriakaz Udabarrian agertzen diranean, margolari zale-dunentzat zio berezia, aren irudimen, asmame-na ekaiñean gozatzeko. Gozatu al izateko.

Arkaitzpe ta mendi magal barrenetan sor-tzen diran iturri ta errekatxuen urak euren bidalian saltokari, ibar, arana zearkatzen dauan ibai-az, beratan euren urak ibairatzeko topo egi-tera joanez sortzen daben ots, eta erreketxu ur garden, ozkirridunen jagole dagozan altz eta leizar abarotsuetan abeslari diran txoritxuen txio-txio eztitsuakaz naastaurik entzuten dan erezi, soiñu liluragarriak, bakartasun aretan bake ta askatasunaren argazki zoragarria ager-tzen dau.

Gure txangolari, erbseteratuak, zelai-une baten, erreka, areitz eta leizar adartsu kerizpe-

tan, iturri baten alboan geraturik, aurreran-tzean eurentzat izango zan egoitz, bizi-lekua, aukeratu eben.

Toki onetan bear-bear dogun guztia dauka-gu. Lurra emankorra, egurra ugari sua egiteko ta sukaltzeko, ura garbikuntza ta edan eta baita be janariak sukaltzeko, taldeko nagusiak, Urtzoka jaunak esan eban.

Erri-kondairak baieztatzen dau, andra-gizon aldra orren nagusi ta gidaria zana, Urtzoka dei-tua zala, izen edo ezizenez deitua izanik, orduntxe, bertan zugaitz, zelaigune, iturri alboan sortu zan erritxua be Urtzoka, aran poli-ta bezela, Urtzoka deitua izatea, erbesteratuak erabagi ebela. Arik aurrera, gaur egun arte, gure ipuiñeko erritxua Urtzoka deritxo.

Gaur egun Urtzoka erritxuan bostean bat auzokide larogei bat basetxetan bizi dira. Erriko abadea, osagile, idazkari ta irakaslea izan ezik, danak, gaiñeroko danak, lurgintzan dabe euren bizi-bidea.

Beste iru etxe aundi, oparotsua, orma ederra-kaz inguratuta, erriko tokirik berezietan, eleiz alboan eraikita ta indianotarrak jabeak izanik, agertzen dira.

Ikastetxe ta dorre, kanpadorren goi-goi batek gailurtzen dauan eleiz, berau be guztiz ederra, batek, Urkotza erritxua osotzen dabe.

Aurrerago aitatu dogun bezela, Urtzokata-rrak geienak nekazariak dira. Abade idazkari,

osagile ta irakaslea izan ezik, beste guztiak baserritarrek, lurgintzan saiatzan dira.

Erdi-nekazari erdi-arotz eta beste erdi-nekazari erdi-errementari be, urtzokotarren artean dira. Leenengoa, erdi-arotza, urtzokatarren basetxeak altzaritu, erredizatze lanen arduraduna da, ta bigarrena, erdi-errementaria, erriko idi, bei, zaldi ta mandoen apatzak zaintzen dauz.

Udal-etxe aurrean, aurrez aurrez, plaza txikitxu bat bitarteko dala, iturri alboan, bizileku bakarreko etxe txiki baten, erdi-nekazari erdi-dendalariak, mota guztietako jaki ta edari, abarketa, kaltzerdi, arkai, garbigaiak, saltzen dauz.

Zelestino, Zeles erritarrentzat, bere etxe alboko iturria bereziki jagoten ei eban. Izan be ardado-saltzaile batentzat, egun osoan, unetxu bat be utsik barik iturri ur gardedun, ur ezin ohea artdaoaz naastatzeko dariola eukitea-guztiz, onuragarria da.

Urtzoka erritxuan bosteun bat biztanle ziran lurraldean, ume-umetxutatik anai bezela, benebenetako anai bazela ziran mutil bi, bata bestea baño sendo, osasuntsuak, bizi ziran.

Oneitariko auzokida bat, mutil gazte, sendoa, Jon zan. Gailurretzeko Jon zan.

Aran sartaldean, aitz erpin goi batzuk aran polit au babesten daben barrenetan, erritik naiko asao, Gailurretxe basetxea aurkitzen da.

Ibar, Urtzoka ibarra inguratzen daben muruaitz eta mendi-besangatan sortzen diran errekatzu batek bere urak ibairatzen dauazan alboan, Gailurretxe basetxean Errufiño ta Kontxi bos seme-alabagaz bizi dira. Aren seme-alabatariko bat, zuzen be, irugarrena Jon da.

Errufiño ta Kontxi etxegunak ez ziran, bordalariak baño. Basetxea, Gailurretxe lurez ez zan bat be edatsua. Errufiño ta Kontxik etenbako lan gogor, neketsu ta arazo ugari, euren bost seme-alabak azi, ezi ta batez be elikatzeke, garaitu bear izaten ebezan.

Gailurretzeko andra-gizonen ondasunak, bei bi esnekoak, zekor bikotea lurgintza lanetarako, beste zortzi bat bei, baso edo mendi-beiak, artalde, au bai kopurutsua, ardi-txakurra, oilo ta untxi batzuk osotzen eben.

Gailurretzeko bordalarien ondasun osoa aitatukoa dala esan dogu, baiña ez da egi osoa. Aitatukoaren ganera Errufiño ta Kontxik bost seme-alaba langile, azkar, zintzo, deduzkoak ebezan. Gailurretzeko altxor berezi, goretsi bearrezkoak.

Gailurretzeko bordalariak, euren bost seme-alabaren laguntza eten-gabea izan arren, zazpi urdail egunero betezeko beste jaki, urte osorako uzta lortu eziñekoa izanik, euren seme-alabak, bat izan ezik, jaiotetetik kanpo euren bizibide bakarra, ikusten eben.

Gailurretxe, mendiska magalean, barrenean,

goi aldetik lantzar, barruti ta erriko alagu edatsuak inguratuta zan ezkeru, bere artalde kopurutsua elikatu al izateko, irueun bat arditik gorako artaldea, geienak esnekoak, amabiko bat ardi-auntz, Errufiñori lurralde orreik onuragarriak izaten jakozan.

Ezkerrak bere artaldeari, Errufiñok artaldea-gandik lortzen ebazan gaztai ta artxoei, bere sendia azi al izaten eban. Guztiz ase ez, baiña bai gose gabe.

Lezatxu basetxean, erriko eleizatik asao barik, areizti abarotsu baten alboan, Pruden erdi-nakazari erdi-errementari bizi da. Pruden errementaria etxaguna da, aren iru seme-alaba, bi gizonetzko ta bat Miren alba bakarra, larrosak eurak añaiko margo gorritzka, matrail gorriska, guri bigunaren laguntza dauala bizi da.

Pruden gizon alarguna da, Pantxike aren andra done, obengabeak Miren alabeari bizia emon eutsanean, berea galdu eban. Gazte, gizon gazte dala, Pruden iru seme-alaba txiki-txikiakaz geratu zan.

Pruden errementariak, bere etxe alboan, Eleizatxu basetxe alboan dauka sutegia. Erritar eta albo-errietako nekazarien lurgintza-tresnak antolatu, konpontzeko ta baita be inguruko idibe, zaldi, mando ta astoen apatzak apaintzeko arduraduna izanik, lan gabe ez da iñoiz izaten. Orren ondorioz, etengabeko lanaren bitartez, txanpon politak, eskuratzen dauz.

Leenago aitatu dogun Prudenen alaba Mirenek gaur-egun amazortzi urte bete barriak dauz, eta betirik polit-ederra, aurpegi margo gorritzka, larrosak eurak baño be matrail gorrizka ba zan, gaur-egun iñoizkorik polit-eder agerturik, erri ta albo-errietako mutil gazteen gurari bizi da.

Pruden errementariak bere arreba Inaziaren laguntza beti izan eban. Inazia alarguna bera be, seme-alaba biaz, aren seme-alaba biaz, Azkarre basetxean, bere neba Prudenegandik guztiz urbil, Eleizalde landetxe aldamenan, bizi da.

Inazian seme-alabak, Iñaki ta Itxaso, Eleizatxu basetxeko lengusu-lengusiñakaz, lagun bereziak ziran. Izan be Eleizalde ta Azkorreko sendiak, benetako aide alkar-maitaleak izanik, euren basetxe ta etxaldetako lanak, arto-indabak erain, jorratu, baso ta mendietatik egurra ta azpigarriak etxe-alboratu, alkarren laguntzaz egiten ebezan. Gizarteak eredutzat artu bear daben alkartasunean, Azkarre ta Eleizatxuko biztanleak euren bizitzak eroezan.

Miren Eleizatxukok bere izeko Inazi guztiz maite eban, gure neskatilak bere burua ule-txor-ta luze polit bat eroateko uts-utsean ez eukan, ondo be ondo ekian izeko Inaziaren laguntza gabe euren bizitza, euren egoitza, umezurtz geratu zinarean, guztiz doakaitz izango zala.

Bere amagandik izan eban ezitze bardin-bar-

diña bere izekoagandik izanez, neskatil gazte-gaztea izan arren, andratxu bat, etxeko andratxu bat dirudian. Beraz au olan izanik, erri ta albo-errietako mutil gaztearen neskatil naigarria izatea ez da arritzekoa.

Gure ipuiñeko irugarren aintzindaria ezagutera joan gaitezana.

Makalane basetxean Migeltxu bere arreba Asentzi, neska zaarra bera be, lagun ebala bizi da. Basetxea lurrez urria da, bei bikote bat elikatzeo aiñako lurrik ez dauan ezkerro, bei bakar bat, bera txikia ta auntz bik neba arreba-aren jabetza osotzen dabe.

Migeltxu leenego aitatu dogun Jonen adin ber-berakoa da, ta beraz ikastolan talde beratan ibillikoa.

Migeltxu ta Jon, euren eretxi, uste, burutasunetan guztiz ezbaridiñak izatea, ez da eragozpenik bene-benetako adiskideak izateko.

Jon gazte-gaztetatik mutil arduradun, borbots, ziñezko, sendi ta erri maitale, ameslari utsa da. Ostera Migeltxu gazte alai, pezta-zale, txantxelari amurrutua. Lana, bearra, berantzat egiña ez da, eskerrak bere arreba Azentsik bere etxean eta auzokoetan egiten eban amaibako lanari, Migeltxuk, asetu ez ba zan be, beintzat egunero bere urdailla atzizpetzen eban.

Non jai, Migeltxu an zan. Erriko txarri-ilte, bateo, ezkontza edo iletarik bere aurkezte gabe ez zan opatzen. Batzuetan deitua izaten zalako,

eta beste askotan bere narru, aurpegi gogorrek eraginda onelako jai aldietan, gertaeratan, narritazale bezela Migeltxu an izaten zan.

Bere auzokide, lagun eta adiskideak, Jonek berak be, sarritan esaten eutsoen.

Baiña Migeltxu, beti iñoren lepotik bizi az zan lotzatuten? Zergaitik beste batzuk egiten dogun lez, lan bear ez dok egiten?

Ara mutilak, eskerrak zuen onuagatik, baiña nilako alper, ganorabako bat elikatzeo, lan, bear egitea merezi dauala, ez dot uste. Beste alde batetik, ez eizue uste izan, lanik egin barik bizitea ain erreza dala.

Beti jakin bear dok non txarria ilten daben, umedun diran andrazkoak noiz erritar barri bat izango daben, estegu ta zoritxarreko iletak be ze egunetan eta orduan diran jakin bear dozak. Ez da au, mutillak, buru auste makala... Ja! ja! ja!... barreka Migelek erantzuten eutson.

Bere bizi Migeltxuk alai, itxuraz alai eroan bitartean, Jon arduratsu, amesleri. Bere elburua Eleizatxuko Miren zan.

Jonek Miren maite ebala, guztiz maite ebala argi ikusten zan, eta Mirenek be, Jonganako izkutatu eziñeko maitasuna, non nai ta beti agertzen eutsan.

Jon nekazari bordalari baten semea izanik, eta Miren erri ta alboerrietako neskatil polit ederrena, mutil gazte guztien naigarri berezia, ta ganera errik errementariaren, Pruden etxa-



gun dirudunaren albea, Gailurretze ta Eleizatxuko sendiak ondasunetan eben ezbardintasuna, oztopo, eragozpen, errez gaiñeratu eziñekoa Joneri iruditen jakon.

Jonek bere nai, guraria, lortu al izateko, bide bakar bat nabaitzen eban. Bai, bere baitan Jonek iñoan, Ameriketara erbesteratuko naz, eta bertan nire aberrikide askok eta askok egin daben lez, urte gitxitan aberastuko naz. Orixe egingo dot, bai, Ameriketatik dirutsa, niretzat dirutsa izugarria izango dan diruaz, etxeraturik Mireneri berari dagokion bezelako bizi on bat opa al izango dautsat.

Jon bere burutasunetan Ameriketarako bidean aurkitzen zan bitartean, Migeltxu bere alper-aldi amaigabeen jarraitzen eban. Goiz erdian ogetik jagi ta erriko tabernara, beralako, bere aiñako ez ba zan be, beste alper ganorabako bateaz topo egiten ba dau ikustera, urreratu.

Eguerdirantz egoitz beratan, erriko tabernan, abade jauna, idazkari ta Periko, indianotarra be geienetan bertan izaten ziran. Beraz laukote berezia musean edo tutean egiteko, jokatzeko, Migeltxuk alden lauko erdi bat be ez eban eukiten, baiña bere txantxa, barregarrizko urtekera-kaz ederto baliotzen zan berari egokiona ez ordaintzeko.

Erriko tabernan lagunik aurkitzen ez ebanean, Migeltxu alderrai errian alde batetik bestera edo txoriak arrapatzen emoten eban denpo-

rea. Sail onetan, txoriak arrapatzen Migeltxu trebea zan ezkerro, bere arreba Azentsik txorikia sukaltzeko aukera sarritan izaten eban.

Onelako alderra-aldietan Migeltxu Eleizatxu basetxerantz atxaki txikiena zio izanik agertzea, ez zan arritzekoa. Jon eta Miren alkar-maitamendurik zirala Migeltxuk ondo ekian, Mirenentxuk be, Jon Migeltxun adiskide berezia zala.

Goiz aretan Migeltxuk ez eban zeregiñik. Txoriak arrapatzeko be egun aretan ez eban gogo larregirik, ibilli ta ibilli, noraezean ibilli ta ibilli Migeltxu Eleizatxu'ko atari aurrean aupada bat egiñik, Mirentxuri esan eutsan.

Egun on! Urtzoka ta alboerrietako neskarik polit, ederrenak, zer egiten dau?.

Baita be egun-onak zuretzat, Migeltxu. Zer dabilzue emendik, ba Migeltxu? Mirenek erantzun eutsan.

Ez dago esateko barririk, albiste nabarmenik beintzat. Ortze goiko Gurbixtegian kardantzilo abia anbat aurkitzen ba dot, joatea erabagi dot, eta zelan ez, bide batez Errementariñeko neskatil, polita, nire begi goibel onek bizkortu naian, ikustera etorri.

Baiña Migeltxu. Zuk ezkontzarik ez dozula nai, nun nai eta beti baieztatzen ba dozul, Mirenek jarraitu eban.

Zulako neskatil, polit, deduzko, eder bateaz, ondamera, niretzat ondamera deritxadan

Mirentxu lusuila urez bete ondoren iturritik etxerantz.



ezkontzea be, ontzat artuko neuke. Baiña ez, nilako buru-bako arlote bat zuretzat ez da bat be egoki, ostera Jon bai da mutil langile, deduzko, zintzo, burudun gizon bat, Migeltxuk barre zantzoka iñotsan.

Ez dakit ba, ez dakit ba!. Oraingoan Jon buru-auste izugarriak, bere buru ta gogoa geiegiz zamatzen dabe, Mirenek saminkari esan eban.

Or Berangotzalde aldamenen daukagun arto-solo alboko txantoa landuten biar arrastian etorriko ba zeintzakez, azkari ta afari oparitsu ta diru apur bat be eskuratuko zeunke, al izango zeunke, Mirenek Migeltxuri esan eutsan.

Ara Miren, zuk ba dakizu ni langile trebea ez nazala, baiña zeuk nai ba dozu, biar arrastian bazkari-antzekoa nire etxean jan ondoren, zue-nean, Errementariñenean izango nozu, Migeltxuk guztiz pozik erantzun eutsan.

Ortze or goiko artedian kardantzilo bikote bat guztiz abeslari dabilela nabaritu dot, ziur euren abia, egoitza or dabe, eta ia aurkitzen ba dot, joan bear dot, Migeltxuk, artedirantz abiatuz, esan eban.

Baiña Migeltxu, txori txiki, bigun, babesgabe orreik, zergaitik arrapatzen dozuz ba?. Zuk zeure azkatasuna maite dozun aiñan, txoriak eurana maite dabe, ta guk, gizaki, andragizonok, nogandik eta noiz txori orrein jabe ta jaun izateko eskubidea lortu dogu ba?. Gomuta eizu, Migeltxu, ta zure gogo, adimenetik zale-tasun ori, txoriak arrapatzeko zale-tasun ori, baztertu eizu, eskertuko zaitut, Mirenek abots maitekiroz, iñotsan.

Egia da Miren, onik aurrera zure naia betetzen saiaruko naz, oraingoan Migeltxu burumakur, erantzun eutsan.

Biramon arratsaldean, Migeltxu bazkari jan ondoren Eleizalde basetxeko atarian aupadaka agerturik, bertako labapean atxurra artu, lepoan ezarri ta Mirenen aurretik eta onen aginduak betetuz Berangotzalde alboko ortutxuan lurra lantzen saiatzen zan.

Migeltxuk arrasti orretan lan, bear, izugarririk egingo ebal, ez dogu uste, baiña Mirentxuk arratsalde alai, barretsua igaro ebal, bai. Migeltxuk bere adiskide Jon dala ta, Jonen buruz, sekulako jazoriak edesten eutsozan, Gertaera, Jonetzaz ziran jazokisun oneik, bere

laguna goralduz eta dana bapikatua izanik, Miren zorionez beterik plast egiteko aurkitzen zan.

Migeltxu, zuk zeure burua sorbalda ganean, Jaungoikoak agintzen dauan moduan, noiz jarriko dozu ba?. Zubeltzako Erramona neskatil polit, deduzko, langile, garbia, Prantsisko ta Inazian alaba bakarraren begiak zu ikustean poztu, alaitzen dirala, uste dot. Erramona bere aita-amagandik bikain ezitzua izanik, neskatil onek gizonik zorrotzenaren gurariak be bete al izateko etxeko-andra zoragarria izango litzake. Zergaitik zara ain buru-ariña edo buru-gabea?.

Ara Mirentxu, nik gaur-egun eskontza jardurarik, bokaziñorik, ez dot. Ez diñot geroago ez nazala ezkonduko. Beste alde batetik, ixilik eukitekoa da baiña Mirentxu esan bear dautsut, neuri be Erramona gustaten jatala, neure begiak be bera ikustean saltokari izaten dira. Ikusiko dogu... ikusiko dogu. Baiña gai astun, arduratsu au baztertu dagigun... ara gai onetzaz, ezkontzatraz, sesto, tortiko, barregarri bat edestuko dautsut. Nire aitagandik entzunekoa da.

Errekondo basetxean Aniz, Anizeto, aren andra Ugenia ta iru seme-alabagaz bizi zan. Etxagunak, etxalde polit baten jabe ziran eta euren bizitza ezkon-barrietan, leenengo amabi-amabost urteetan, ederto joakoen.

Anizek lurrean gogor lan egiñez, gizon langilea zan, sendia elikatzeko bear eban guztia ta apur bat geigo be uzta bezela lortzen eban. Egi

osoa berebila esateko aitatu bear dot, Ugeni bere andra Ugeniren, laguntza, bai lur, solo zein basoetako lanetan eta baita be korta eta etxe inguruetako bearretan, Anizek beti izaten ebala. Bai ordurarte ezkontza, bikote zoriontsu bat zan.

Ezkondu ziranetik, or amabi amabost urte ingurura, seme-alabak azitzat ikusi ebezanean, Aniz eta Ugeniren bizitza aldatzen, guztiz aldatzen asi zan. Ulertu eziñeko aldatze onen zio bakarra Zelestino erriko tabernako ardao-saltzailea zala, iñoen.

Izan be ze ardaotxu gozoa Zelestiñok saltzen eban ba!.

Aniz, solo edo basoetako lana amaitu ondoren, illuntzean leenago egiten eban bezela, au da zuzen-zuen etxeratu, orain Zelestinok zelako ardao daukan tabernara sarturik, bertan beralako buru-gabedun erritar anbat txantxetarako beti aurkitzen eban.

Aniz gaba erdia baño leenago eta buru argiaz gitxitan etxeratzen zan ezkerro, aren andra Ugenia bere gizona olan ikusita, bereala oika esaten eutsan.

Ori da bai, ori, gizon zentzudun baten ganorra eta ezitza, ori da bai gizon deduzko, burudun baten etxeratzeko sasoi ta itxurea... mozkorti... zuk zeure etxea ondatu eta Zelestino ardao-saltzailaren diru-zorroa betetu... egiten dozu..., baiña ez, egun anbatan gertaera oneik amaitu-

ko dira..., alako baten egingo dot egitekoa...  
orixe ba...

Ixildu zaitez txilin ori... ixildu zaitez!, gizonak esaten eutsan.

Zer ganera ixildu naitela!... Zu mozkor... ganorabako bat besterik ez zara, ta ganera neu ixildu?... Bai, alako baten betirako ixilduko naz... bai, andreak jarraitzen eban.

Orrela ba litz... zoriontsua ni, gizonak erantzuten eutsan.

Errekondo basetxean olako gertaerak eguneroroz jazoten ziran, baiña gaba baten Aniz etxeratu zanean, ori bai gaba-erdi inguruan eta bere sakela ardaoz ganezka zala, beti lez bere andrea oiuka asi jakon.

Mozkorti... mozkor... beti mozkorragaz... Au ez da bizitza... ezin dot geiago... bai, ixilduko naz betiko... Ugenik senetik urtenda negarrez iñotsan.



Jon eta Migeltxu mandoak trailan eroeroezala uri nagusirantz.

Jarrai bai, andrea jarrai, emen daukazu leioa idegita, aurrera ba, zer iñoan be jakin barik, Anizek erantzun eutsan.

Andra errukigarriak, aldean eukan amantela kendu eta leiorantz abiatu, bertatik jauskada baten bere burua errekarara bota eban.

Arraio arraioa!... bere baitan iñoan Anizek, esan eta egin... Ez neban uste olakorik egingo ebal. Azkenengo urte oneitan, nigaz andra guztiz ona ez da izan, baiña nire seme-alabaren ama de ta orrelan ezingo dot itxi, utxi, bai bere bila bereala joango naz.

Anizek orrelan egin eban. Bere eskuetan argi-ontzi bat artu, baita gaba illunegia zan ezkeror suzi bat arturik, erreka baztarretik gorantz or doa gure Aniz bere andra bila.

An ebilen gure gizona erreka baztarrean okoilu guztiak arakatzen. Erreka bazterretik gorantz, guztiz urduri, arduratsu joiala. Aniz, bere lagun eta auzokide Txomin eta Perugaz topo egin eban, topatu zan.

Bikoteak Aniz ikusi orduko beraganatu ziran eta agurtu eben esanez.

Gabon Aniz, zer, sasoi onetan, gaba-erdian zer dabiltsu erreka bazterrean? Anguletan zabiltsu, ala?

Anguletan dinostazua, anguletan, angula onan bila nabillek..., niri jazo jatana... niri jazo bear au bere...

Baiña gizona zer jazo dak ba?, Txomiñek,

Anizen bakar-izketa etendurik, itaundu eutsan.

Andrearen jokaerak, bere andrearen jokaerak eragin eutsan biotz ikarak Anizeri aldean eroan mozkorra arindu eutsan, urrean, eta goibelki gaba aretan jazorikoa azaltzen saiatu zan esanez.

Gaur gabea apur bat belu etxeratu nazalako, apur bat berandu etxera eldu nazalako. Ba dakizue eguneroko lan, bearraren, ondoren Zelestinoren edantegian musaldi bat egitea guztaten jat eta... bart'ko luzeegia izanik... belutxu etxeratu nintzan. Ori dala ta nire Ugeni, ni ikusi orduko oiuka errietan guztiz asarre sekulakoak esan eustazan... egia esan neu be ez nintzan egon guztiz ixilik...

Izan be Aniz, Peruk iñotsak, azpalditxuan Zelesek ardao gozoa euki bear jot... ze sekulakoak arrapatzen dozak... Baiña zer, ori dok, guztiori, suzi argitan gaba-erdian ibilteko, ori dok zio osoa?.

Ez ba, asarre-aldian nire andreak zemaika bere burua leiotik bera botako ebala esaten eutsan, eta ara non olako baten oinkada batzuk egiñik sukaldeko leiora urreratuta bertatik bere burua bota jok, Anizek orain ondiño makalago esan eutsen.

Sarritan zemaika bardiña egiten eustan, baiña egin, egingo ebala ez neban uste.

Baiña Aniz, bere auzokide Txomiñek diñotso. Errekea naiko urtsu dator eta farol-argi orre-

agaz zelan zoaz erreka gorantz ba?. Errekako uretara jausi ba da urak eraginda beratz joango zan... Ez dakizu ba, erreka urak berantz egi-ten dabela?.

Aai adiskideak... Argi dago nire andrea ez dozuela ondo ezagutzen. Orain be, orretzaz ziur naz, nire aurka egitearren erreka gorantz egingo ebala. Zuek ez dakizue aren aurka-joera, griña zitala zenbaterañoa dan... Bai gizonak erreka gorantz joango zan, ez dot zalantzarik, Anizek alkar-izketa amaitu eban.

Zer deritxazu Mirentxu ja! ja! ja! barre-zantzoka Migeltxuk bere txantxaldia amaitu eban.

Ederto, ederto Migeltxu, oraintxe bertan beste txantxa bateaz erantzungo dautsuet, gaur neu be txantxelari naz. Zugaz zer-ikusi aundia dauan sesto, tortikotxu bat edestuko dautsut, Mirenek iñotsan, eta jarraitu eban.

Arreta aundiz aditu eizu, Migeltxu.

Gure errian jazorikoa ez da, ez. Gure errian, Urtzokan, zu jaio arte, Migeltxu, alperrik ez da izan, beintzat gure erritarrak zaarrenak olan diño, Albo-erriko sendi baten gertaera au izan zan.

Txistu, gure ipuiñeko aintzindaria ezizenez olan eritxon, Juan Kruz eta Errosaren seme bakarra ume-umetxutatik guztiz mizkez azi ta ezia izanik, lan eta ikasketarako dei, griñarik, ez eban. Bere aita-amak etxalde lurrez edatsu, palda aundidunaren jabe ziran ezkerro arto, inda-

ba, gari ta txakoliñe urte osorako kanbaratzen eben, beraz etxe aretan larrialdi, estualdirik, ez zan izaten. Juan Kruz eta Errosa baso, solo ta etxean lanean gogor jardutzen eben bitartean, Txistu bere antzeko alper batzukaz sasi-eskola eginda txori-abi bila edo txoriak arrapatzen emoten eban astia. Osagilearen ortuko igaliak, batez be kereix eta okeranak, Txistun guztokoak ziran. Bein baño geiagotan deabru arek, kolko-kada igaliz basorantz iges egiten eban.

Olan joakon Txisturi bere bizia, golperik emon barik, gaztaroan alderrai errian alde bate-tik bestera, geroago gizondu zanean, beintzat itxuraz, erriko tabernan musean edo txantxe-tan.

Baiña Txisturi be bere alper-aldi, alderrai-aldiak, amaitu jakozan. Gaixo zital, gaixo guz-tiak zitalak dira, baten ondorioz bere aita-amak il jakozan. Or dogu Txistu etxagun, etxe eder eta lurrez edatsu zan etxalde baten jabe. Abereak be ugari, baiña lan, bear, egiteko gogo gabe.

Orain zer egingo dot nik? bere baitan Txis-tuk iñoan. Ni lan egiten oituratuta ez naz. Lurgintza, nekazaritza, lan gogorregia da. Lurra landu, abereak elikatu, ta zoritxarrez egunero jaten dabe, bedar, balarrak ebagi, etxeraño garraiotu, beiak eratsi... Jesus zenbat bear! .. Niretzat larregi da. Orrez ganera, neu be ez naz atzo goizekoa.

Leenen-leenen beiak salduko dodaz, gero zekorrak, Txistuk bururatzen jarraitu eban, oilo ta oilozkoakaz uts-utsean geratuko naz, oneik elikatzea ez da bat be neketsua, arrautzat batzea be erreza da.

Txistuk asmau eban lez egin eban. Bei eta idi, zekorrak, saldu ebazan. Saldu bai baiña zelan. Premiako abere-saltzea mantxunga sekulako erosleentzat izaten da, beraz Txistu aldi aretan premiaduna zan ezkerero diru larregi ez eban eskuratu.

Zuk Migeltxu etorri-gabeko osin, zingirari, zer jazoten jakon, legortu egiten da, ez?. Orixe ber-bera Txistun diru-zorroari jazo jakon. Txistu txanponik barik geratutik, oiloak be saldu ebazan eta geroago lurak be salduta, azkenean, bera ta bere aurrekoak, asabak, jaio ziran etxea be saldu bear izan eban. Gela txiki bat uts-utsean Txisturi geratu jakon, eta beratan geienetan etzunda egun geienak emoten ebazan.

Gutziz azperturek, etsi-etsinda aurkitzen zan aldi baten, burutasun sekulako bat izanda era-bagi sekulakoago artu eban.

Bere auzokide Faustino ta Josebari deituta, aurretizik gertuta eukan ilkutxa baten sartu egiela, ortu-deunarantz eroan eta berta bizirik lurperatu egiela mezedez, eskatu eutsen.

Joseba eta Faustino alekin guztiak egin arren Txistu ezin izan eben limurtu, bere buru-tik burutasun izugarri ori aldendu.

Zure azken-guraria ori ba da Txistu, guk zeatz zure naia beteko dogu, Josebak esan eutsan.

Nai-ezean, guztiz nai-ezean, Joseba ta Faustínok, il-kutxan Txistu sartu, abadeari degin, eleiz-kanpaiak iletara jo eben eta or doaz anda-bidetik gure bikotea Txistu il-bakoen gorpuaz ortudeunarantz.

Erritarrak il-kanpai deadarra entzutean arritu ziran, eta alkar-galdetzen eben.

Nor ilda ba? Errian Abaro-beko Atsotxua izan ezik beste notifik gaixorik dagola ez daki-gu, ta Fernanda, au da atsotxuaren izena, osasun urriaz, baiña bizirik da.

Andra-gizon, erritarrak, andaketariara urreratu ziranean, andrazko batek oiuka inotsen.

Nor da il dana, ba? Nor da il-kutxa orretan daroezuen ba?

Txistu, ilda ilda... ez da baiña... andaketariko batek erantzun eutsan.

Nor?... Txistu?... Nire lengusua?... andrazkoak inoan, eta jarraian esan eban.

Ilda ez ba da, zelan ortudeunara daroezue, ba?

Bere azken-naia da, bizirik lupratzea eskatu dausku, ta bere guraria betetzera goaz, Faustínok erantzun eutsan.

Andra gaztea il-kutxarantz urreratuta, oiuka Txisturi esan eutsan.

Neure lengusu maitea! Txistu, olakorik ez

eiuzu egin, zeure burua ilgo dozu ba, zer? Ez daukazu zer janik, ala?

Ez, ez daukat jakirik eta bere bila joateko adorerik be ez, Txistuk erantzun eutsan.

Zeure burutapen izugarri ori baztertu eizu, ara, anega bat arto neuk emongo dautsut, lengusiñak esan eutsan.

Bai ederto, Txistuk erantzun, baiña artoa zelan dago, eiota ala eio barik.

Eio barik gizona, eio barik! lengusiñaren erantzuna.

Eio barik ba da, mutilak aurrera ortudeunaraño, ni artagarao errotara eroan, eiota uruna etxeratu, kanbaratu, lan bear, guzti orreik egiteko ez nago mutilak, alan da ze, aurrera.

Ara emen Migeltxu, alperkeriaren ondorioa, Mirenek bere itzaldia amaitu. Begiratu, aditu eizu ipuin onek zugaz zer ikusirik ba dau.

Orain iluntzera doa, ilun-ekzila beingoan entzungo dogu etxerantz abiatzea egokiena izango jaku, Mirenek esan eban. Bereala adiskide biak atxur eta gaiñerako tresna guztiak batu, leporatu ta alkar-agurtu ondoren, euren etxeetarantz joiazan.

Mirentxutzat eguna ez zaen amaitu, ondiño lantxu, beartxu batxuk egitea geratzen jakon eta euratariko bat berantzat guztiz guztokoa, au da, iturrira ur ozkirri bila joatea zan, zuzen be San Juan iturrira.

Udal-etxe ta eleiz alboko iturriko ura baño

obeago dala ta, eleizaldeko auzokideak ur ozkirri bila San Juan iturrira joaten ziran. Mirentxu iturri beratako bezeroa zan. Lusuila buruan eta potix eskuan eroazala egunero, geienetan arratsaldero, Mirentxu iturrirako bidean izaten zan.

Aren aita, Mirentxun aita, sutegitik egunero ko lan gogor, neketsua egiñik, egarriz itota etxeratzen zan ezkeru, atxaki berezia maitamendurik zan neskatilentzat bide-batez Jon bere maiteaz alkartzeko.

Gailurretzetik Sanjuan iturria solo munatatik bide naiko luzea da, maitamendurik gazte batentzat bere maiteaz egoteko luzeegia, baiña Jonek bein eta barriru bere etxetik iturriraño bidaliak egiñez, lantzar eta landa bedartsuetatik zear iturrirako beste bide-zior, laster-bide bat eratu eban.

Iluntze, ilunabar aretan Mirentxuk Jonegaz egoteko asti guztiz laburra izan eban. Sutegitik bere aita etxeratu baño leenago etxeko sute, sukaldan, ur ozkirriak egon bear eban.

Gailuretxe aldamenean baso txiki baten ira ta azpigarria batzen saiatzen zan mutilak, arrasti osoan neskatilatxuen mugimendu guztien zain egoan mutilak, Mirentxu ikusirik, berak be iturrirako bidea artu naian eskuetan ebazan tresna, baso-sega baztertu, guztia berton laga ta alboko munan eukan jakean dauala or doa bera be iturrirantz. Antza zanetik bera be, mutila be, egarrituta ur ozkirri zurrutada bat edatera

joiala dirudian. Baiña ez, Jonek edari egarririk ez eban sentizen, berak Mirenganako eban maitasun-egarria asetzea bere burutapen, ametz guztien elburua zan.

Jonek, ber-berak soilki bere jon-etorriakaz, berak iturrira egindako jon-etorriak eraginda sortu eban bide-ziorretik, landa, lantzar orlegi bat zearkatuz lorturiko bidetik, Jon leiatsu, ariñeketan, izerditan iturrian agerturik, Mirentxu bere maitea agurtu eban, esanez.

Ola Mirentxu, ze arraio egiten egon zarie arratsalde osoan arto solo aretan?. Zeuk bakar-bakarrik bein baño geiagotan arrasti baten jorratu dozun solotxu aretan, ze egiten egon zarie ba?.

Ez zaitez, Jon maitea nigaz asarratu!. Migeltxu ba dakizu zelakoa dan, zure adiskide-ri zintzoena zelako txantxelaria dan ba dakizu. Baiña guztia txantxeta ez da izan. Zutzaz be, txantxa ta txantxa bitartean, Migeltxuk, beraz zu goralduz, berba ta berba jardun dau. Mutil errukigarria, orretan bene-benetako adiskide bat dozu. Ostera lan, bear, geigerik ez dogula egin autortu bear dautsut, Mirenek esan eutsan.

Ez da Mirentxu asarrerik, Jonek erantzun eutsan, nire izekera zaiñar onen eragin txiki bat izan da, parkatu eistazu. Jarraian txantxa naian Migeltxu antzeratuz iñotsan.

Beko solotxuko arto-indabak aurten txantxalari, alaiak, urtengo dabe, ziur ja! ja! ja!.



Zeuk zelan emon dozu arratsaldea ba?. Goiz, aurretizik, ota-bedar azpigarria batzen zabiltz, Mirenek esan eutsan.

Mendiska gailur aretatik zuen solotxua be ikusten da ta... irribarreka Jonek erantzun eutsan.

Egia da, arratsalde aretan Jon azpigarri batzen saiatzen dan basotxu aretatik, Miren eta Migeltxu ikusten ebazan, eta zio au dala ta, Jonek berak be lan, bear geiegirik ez eban egin. Solotxura begira, burua goi, ote-zega kirtenean bere gorputza zutikatuta, sarriegitan ikusten zan.

Jon Udagoiena baño askoz aurrerago azpigarri batzen saiatzen ba zan, arratsalde aretan basoan saiatzen ba zan, Mirentxu ikusi naian uts-utsean ez zan, Jonentzat Ameriketantz ontziratu baño leenago, urte osorako uzta guztia kanbaratu, eta negurako, Negu gogorrerako sugarria etxe alboan pillotu ta azpigarri, ota-bedar eta irea be Negu osorako etxe alboan ziurtzea, Jonentzat barriro diñot, premiazkoa zan.

Bikoteak alkar-besarkatu ondoren, potize ures betetzen jarri eben. Bere erbesteratze buruz Jonek ez eban nai izaten berbarik egitea, iluntze orretan euren alkar-izketa gaia erbesteratzea ez zan.

Mirentxu Jonen burutik Ameriketarako erbesteratze burutapen, Mirentxutzat ain min-

garria zan gomutapen ori, baztertu edo apur bat makaldua, beratua, izan ba zan jakitea premiazkoa egiten jakon, baiña iluntza onetan gai au baztertu izan zan, euren alkar-izketan baztertua izan zan.

Potize urez bete zala uraren otsak errekatuan jausirik adierazoten eban, baiña gure bikote onek, maitamenduta, alkar-maitamendurik zan bikote au arazo onegaz ez zan konturatu, euren maitamendurizko sorgor-aldian potiz, ura errementariaren egarriak ez eban lekurik, alkar-besarkatuta euren biotz sutsuetan ziran maitasun-txingarrak adimen, gogoaz jabeturik, ludi onetako beste arazo, ardura guztiak baztertuta ebezan.

Jon maitea, maiteko nozu beti?, Mirenek itaundu eutsan.

Bai Mirentxu, sekula ta beti maiteko zaitut, Jonek iñotsan, eta jarraian bere maiteari iñotsan.

Zoriontsua zure aita, zurrutada luze gozoro potiz orretatik egiñez, bere egarria asetuz, nasai, zoriontsu geratuko da, ostera nire egarri-asegarria dan potize zu zara, eta nigandik alde egiten ba dau, aldatzen ba da, nire egarria ta beraz nire oiñaza, samintasunak aundiagotuko dira... Baiña bai, eleizako kanpaiak iluntz-otoitzera deika dagoz, etxeratzeko sasoi da, agur nire maitea, agur...

Agur Jon biar arte... biar barriro zure potiz

egarri-asegarria bete-beterik eukiko dozu, neskatilatxuak esan eban.

Eta musu bero-bero bat emonez Mirentzu bere etxean sartu zan.

Biramona beste egun barri bat, baiña artero-koen antzekoa, erritarrak euren zeregifñetan jardunten eben.

Sutegian, errementariaren sutegian, goiztar mailu-otsak egun barri baten sortzea adierazoten eban, abade jauna eguneroko mezea emoten, idazkari ta irakaslea euren lantokira, ta baserritar, nekazariak euren soloetan lan, bear, ezbardiñetan euren biarko jakien itxaropena ezartzen eben. Bitartean Migeltxu egu-erdi inguruan bere etxetik urtenda erriko tabernarantz joian. Bidean topo egiten ebazan erritar guztiak, alai, txantxelari agurtuz.

Ola Migeltxu, zer ba zoaz lanerantz, ez? Faustino Azkorrekok beragaz topakeran esan eutsan.

Bai Faustino, bai, ba noa, baiña lanerantz ez. Danok lan, bear, egingo ba geunke dana, jaki, edari, soñeko, oiñetako, danatariko ganezka egongo litzake. Oba da alper bat edo beste erri bakoitzean izatea zuen langilen uzta guztiaz baliozkeko. Ni Faustino, zuk ondo dakizu, tabernarantz noa, ia bertan nilako alper ganorabako anbat aurkitzen ba dot, Migeltxu beti lez irribarreka erantzun eutsan.

Bai, ordu-lauren bat da, Zabal-azpiko Errufiño

alboko miña dauala ta, lanerako makal dala ta, edantegian sartzen ikusi dot, Faustino erantzun eutsan.

Gaixo, makaltasun ori ez da bat be ona, neuk be bein baiño geiagotan izan dot... osagileana joatakoa da..., baiña ez, tabernan ardao apur bateaz urdaila igortziz, ondo osatzen da... barre zantzoka Migeltxu iñotsan.

Baiña Migeltxu, iñoiz lan, bear, egiteko nai, gurari bizi-bizirik ez dozu izan, euki?, Faustino adarra jo naian Migeltxu iñotsan.

Bai Faustino, bai, bein baiño geiagotan lanerako gogo, gurari bizi-bizia izan dot, bai orixe, borbots Migeltxu erantzun eutsan.

Eta orrelako aldietan Migeltxu, zer egiten dozu ba?, Faustino itaun barri bat egin eutsan.

Zer egiten dodan... eutsi Faustino, eutsi, gurari, gogo bizi-bizi orrei eutsi gogor, eutsi.

Migeltxu erantzun gabe itaunik ez eban itxiten.

Goiz orretan Migeltxu muserako lagunik ez eban izan, ostera arrastian abade jauna, idazkari ta udal-zaiñak jokorako laukotea osatu eben. Migeltxu ta abade jauna, idazkari ta udal-zaiñaren aurka jokatu eben.

Laukote aren tartean, muselarien artean, txantxa ta zirikatze ugari izan zan. Batez be idazkaria Migeltxu zirikatzen arrasti osoan jardun zan.

Jauna, idazkariak abade jaunari iñotsan,

berorrek jakingo dau zeruan txantxelari batxu bat bere ez dagola, zeruan ondiño txantxelari-rik ez dala sartu, berorrek jakingo dau, ez?.

Migeltxun erantzuna bereala izan zan, mutil urduri buru argiduna, bere urtepeide, urteerak, arritzekoak ziran.

Ori idazkari jauna, zuk dirauzkusuna ez da guztiz egia. Zeruan bein beintzat txantxelari bat sartu zala, ba dakigu, Migeltxuk erantzun.

Baiña Migeltxu, zuk zeruan txantxelari bat sartu zala, zelan dakizu ba?, barrero idazkariak itaundu eban.

Ara, ondiño aste asko ez dira, emendik asao barik bizi zan txantxelari bat, bere tortiko, ateraldi guztiakaz, sorrotxu baten sartura, bere babesle bakarrak ziran tantxetakaz zeruko atee-tan dedarka agertu zan.

Idegi atea arren!... Idegi atea mezedez!, txantxelariak iñoan.

Bereala zerrallu otsa entzunda, Kepa Deuna atean agertu ta iñoan.

Nor da ain larri, saratatsu deika dagona? Nor zara zu, nondik zatoz eta nok bialdu zaitu? Iñoren gomendiorik ba dakazu?.

Ara Jauna, parkatu bedi nire larritasuna. Toki eder, zoriontsu ain zoragarri onetan, Zeruan, sartzeko guztiz urduri, arduratsu naz ta! Nire gomendio guztiak ementxe zorrotxu onetan dakardaz.

Ni Osentzeko Manutxu naz, Batxi ta

Angelan semea, euren seme-alebetan irugarrena, Manutxuk, txantxelariak, Kepa Deunari iñotsan.

Zure eriotz, ilteaz, jakitun nintzan Kepa Deunak esan eba eta jarraian iñoan. Zu zerura bialduko zainduezala ez neban uste, txantxelari bat zeruan izatea ez neban itxaroten. Zorrotxu orretan dakarzuna azterkatu bear dot, parkatu.

Kepa Deunak zorrotxua azterkatu eban, eta guztia zuzen, ezelako eragozpen gabe zala ikusirik, Manutxu zeruratzeko baimena emon eban.

Baiña gertaera, jazokisun, ain bakan, arrigarria, au da txantxelari bat Zeruan izatea, baiez-tatzeko agerkai bat egitea bearrezkoa zan.

Mutilak, Kepa Deunak oiuka bere laguntzailei iñotsen. Idazkari bat bear dogu. Agerkai bat, Manutxu, gizon onen zeruratzea sekula ta betiko argi geratu daiten, agerkai bat egiteko idazkaria bear dogu. Abotz gogor, indartsuz toki guztietan aldarritu egizue, idazkari bat eskatuz aldarrikatu eizue.

Esan eta egin, Kepa Deunaren laguntzaileak zeruko toki, bazter, okoilu guztiak zeatz arakatu ebezan. Lan alperrikoa, laguntzaile zintzo onein alegiñak alperriokoak izan ziran. Zeru osoan idazkari batxu bat be ez zan aurkitzen. Zoritxarra, legegizonakaz be bardin jazo zan eta azkenean ikasle gazte batek agerkaia egiñik, Manutxu pozik, alai, saltuka Kepa Deunaren eskutik, Zeruan sartu zan.

Idazkari jauna, Migeltxuk iñoan, gertaera au baieztatzeko, Kepa Deunari itaun, galdetzea baño ez dago. Orretarako zein jazokisun bearezkoa dan danok dakigu.

Muselari ta txantxa taldekide guztiak, jakina, barre zantzoka. Migeltxu olakoa zan.

Migeltxu musean ordagoka bazterturik, goazen Gailuretzera. Jon eta aren sendian zer jazoten zan jakin dagun.

Errufiño ta Kontxi, Gailuretxeko bordalariak, Jonen aita-amak, arduratsu, euren seme-alabaren etorkisuna dala ta guztiz arduratsu, kezkatu bizi dira. Aita-amaren babespen gabe, egalpe gabe, Jon eta bere anai-arrebearen etorkisuna oso ilun ikusten eben, ori eurantzat etorkisunik ikusten ba eben.

Kontxi, ama errukigarria negar baten aurkitzen zan.

Errufiño! Ameriketean ze etorkisun gure seme Jonek izan dau ba?. Senide, aide, adiskide, ezagun-gabe arrotz erri aretan, gal-bide, gaiz-pide ugari aurkituko dauan lurralde aretan, noren babespen, laguntza gure seme Jonek izango dau?... Kontxik sotinka iflotsan.

Errufiñok, andra maite besarkaturik, pozarazi naian andra donea bein eta barrero lastanduz eta lasaitasuna irudituz abots maitekorrez diñotso.

Kontxi andra maitea, nasaitu zaitez, leenengo ta bein gure seme errukigarria guda zital

batera ez doa. Egia da, ludi saltzaile onetan, gizaki batek laguntza-gabe ezin jasan al izateko arrisku geiegiaz topatzen da, baiña Goi-epaileak izakii txikienari be, ifurritxuari be, berari dagokion babeskia ezartzen dau. Gure Jonek babeski bereziak dauz. Gazte kementsu, langile, deduzko, zindoa da, ganera, onbide guzti onein ganera Jaungoikoagan siñesten dau, beraz babeslari zintzo, onena.

Ziur izan andratxua, urte bi edo iru barru Jon gugaz izango dogu. Dirutsa uzigarririk bear ba da ez dau etxeratuko, baiña bai naikoa Errementariñeko Mirentxuaz eskondurik, ilobatxu zoragarri batzun aititak gu egiñik, bizi-bide jaseko bat eroateko. Baikorrak izan bear dogu, andratxua, eta ez etsikorak. Eta orain ogeratu gaitez, gaur gabean Jon apur bat belu, beranduago etxera elduko da. Mirenegaz agurtze luze, mingrria izango dau, alkar-banatzete mingots samina...

Alan zan Errementariñenean gertatzen zan ikuskisun agurraldi mingarria azaltzean, erbestertate-agurraldi bat azaltzean, biotz gogordun idazle bera be, biotz-kikoldurik geratzea ez da arritzekoa.

Miren eta Jon, euren alkar-maitasunaren agerkisun zintzo, benetakoa zan alkar-besarkatze eta ixiltasunean, denpora luzeak emoten eban.

Miren maitasunezko izketan, bein eta barrero

Ameriketarako artu eban erabagia, Jonek ukatu egian saiatzen zan eta sorgoraldia etenik, Joneri iñotsan.

Jon maitea, Ameriketara zertarako, zergaitik, zeren billa zoaz, ba?. Gailuretxean zure aita-ama ta zure anai-arrebaren maitasun zintzoa dozu, erritarrak maite zaitue, auzokide guztiak zure adiskide benetakoak dira, nire maitasunatzaz zalantzarik izango dozula ez dot uste... Erri ez albo-errietan ez dozu gurea aiñako, gure erria aiñako polit, eder, maitagarri, zoragarriagoa izatea eziñekoa da ta... erbesteratu!... zergaitik... Non, Jon maitea, emen bño ondasun ugari zintzoagorik aurkituko dozu, ba?... neskatil errukagarriak iñotsan.

Ara Mirentxu maitea, nire erbesteratze zio bakarra, zuretzat gaur opa al dautsudan etorkisun, bizi-bidea baño askoz obeago bat nai dodalako, da. Nire Ameriketara itsututa diruan atsean uts-utsean ez noa. Dirua ludi onetan bear-bearrezkoa da. Naizta dirua zorion utsa ez izan, berau lortzeko, zorionsua izateko, laguntza berezia da. Geienetan biotzaren maitamendurizko eragiñak, laztan, kutun eragiñak, bere auzokidea dan, biotzaren auzokidea dan urdailaren gose karraskadak moteltzen dabez... Ni Ameriketara luzaro ez naz egongo... nire Ameriketarako erbesteratzeak urte asko dau iraungo... Epe labur, eta luze guretzat, lortzen dodan txanponakaz Geiluretxean izango naz,

barriro izango nozu... etxeratzean, astirik be galdu barik bion artean bizi barri ta zorionsu bateri asiera emongo dautsagu...

Jaungoikoak nai dagiala olan izatea, Mirentxuk eten eban Jonen berbaldia, zuk artu dozun erabagia, Jon maitea, atzeratu eziñekoa dan ezkerro, neuk be ontzat artzen dot, samin-garria jatan gertaera onetan be zugaz ados naz...

Maitasunezko ixil-aldi laburtxu baten ondoren, Mirentxuk jarraitu eban.

Aurreratu al izan dodazan txanpon urriakaz zuretzat erositako oparixu bat daukat...

Zidarrezko katea Karmengo Ama Birgiñaren besoetan Aren seme maitea daroala, domiña bat, au be zidarrezkoa, Joneri samatik bular ganean dindilizka, musu, laztan eta negar malkoz mutilaren alkondarea ezoturik, ezartzen dautsa.

Domiña onek, Kermengo Andramarik zainduko zaitu, jagongo zaitu... kate ta domiña au zure bular ganetik unetxu baten be ez daitela aldendu, zugaz bular ganean, zure bular ganean, eta baita be zure gogo, adimenean euki, izan eizu... orain banandu gaitzean...

Mirenek bere izketa, berbaldi, mingarria eten eban, bereala etxerantz abiatuz, baiña Jonek eskutik eutsirik iñotsan.

Bai ene maitea, sekula ta beti maite izango zaitut. Euskotarrantzat ukatu eziñekoa dan itz, berbea, emoten dautsut... zer diñot itza, doñiña

maitegarri onen ganean zin egiten dautsut..., ez zaitudala iñoiz aitzuko... nire bizi osoan maitatuko zaitudala zin egiten dot... Muga-gabeko itzal zabal, alde-eragille dan itxaso zabal bitartea, naizta iger, uger izan gaiñeratuko dot... Urte asko barru barriro emen izango nozu... eta bereala bizi barri bat... biok batera alkarturik eratuko dogu, agur Mirentxu, agur...

Jonek bere atzamarrak kurutzaturik domiña ganean kurutzaturik, zin zintzo, sutsu, bero-bero bat egin eban.

Bitartean Gailurretxe basetxea, Errufiño ta Kontxi, Jonen aita-amak, euren seme maitearen erbesteratze abiamanak egiten saiatzen ziran. Zorro baten oiñetako oski, abarka ta abarkatak alde batetatik eta baita be soñeko kaltzerdi, alkondara, txartes, prakta ta txapela. Bidali-zorrotxua soñeko ugariz ornitua izan zan.

Errufiño, gure mutila izango dan lurraldetan zelako egutaroa izango dan ez dakigu, orregaitik guztitariko soñetako ta oiñetakoak zorrotxu onetan sartu dodaz, Kontxi errukigarriak, negar-malkoz zorrotxua ezoturik, bere gizonari iñotsan.

Bai, ederto andratxua egin dozu, zuek andrakok, seme-alabaen arriskuak bereziki neurtzen dozuez, gizonezkook baño askoz be obeto, Errufiñok, bere begietatik dariola ziran negar-malkoak galdi-arazitzen naian, erantzun eutsan.

Bereala Kontxi jaki-zorrotxua betetzen saiatzen zan. Orretarako egun aretan goiztar bere gizonari esan eutsan.

Errufiño, biar bere bidalirako gure semeari emoteko oilotokian dagozan oiloskotariko eder bikote bat, il eizu.

Oilosko bi eder-ederrak, guri, lodiak erreta, lukainka, txorizo, gozoak ugari, urdai-azpiko zati aundi bat, gaztai batzuk eta ogiaz, jaki-zorrotxua osotu eban.

Biramonean, egun-sentiaz, eguzkiak bere leeengo izpi makalak argitasuna Landabaso ganetik aran, ibar, Urtzoka ibarrean agertu baño leenago, Jon, bere adiskide Migeltxu lagun eballa, uri-nagusirantz, bertako kaian itxasontziratzeko asmuz, abiatuko zan.

Goizaldeko bostetarako, Migeltxu aupadaka Gailurretxe basetxeko atarian agerturik, bertako biztanleak agurtu ebazan.

Gailurretxeko andra-gizon maiteak, egun on.

Eta beste barik ateko kisketari biraka-erdi bat egin eta bultzatuz, Migeltxu etxebarneratu zan.

Unetxu baten Gailurretxetek aldendu gaitazan, eta goazen Errementariaren etxera, Mirentxunean zer jazoten zan ikusi dagigun.

Mirentxu, neskatil gazte errukigarria gaba osoan ogeratu barik. Gabaren leenengo orduak urduri, etxean alde batetik bestera, Jon maitea bere gogotik aldendu eziñik, oldozkor, sekula-

ko gogoketatan goiezeko seirak noiz elduko ziran, zain.

Ordu orretan, goizeko seiretan, Jon bere etxe, erri, lurraldetatik aldenduko zan. Olio-argi txiki baten disdiratzen zan Begoñako Andra Mariaren irudi aurrean, Mirentxu negar, sotinka ta otoitz naasturik, bere eskakisun bakarra, Jon zaindu, jagon, egiala izan zan. Eleizako kanpadorreko ordutegia seirak jo ebazanean, siñismen, fede sutsu, zintzodun baten eragiten dauan maitasuna bere biotz barneaz jabetu zan.

Gailurretetik bera, Urtzoka arana zearkatuz, bere maitea, erritir aldentzen zala, Mirentxuk, Jonen oinkadan otsa, bere belarriakaz entzun ez, baiña bai bere arima, gogo, biotz zaurituan sentitzen ebazan, eta zelan.

Bitartean, Migeltxuk Gailurretxen Errufiño ta Kontxi bizkortu, alaitu naian iñotzen.

Garaia da, ordua da Jon, gure bidali luzeari asiera emoteko. Zorroak mando ganean jarri dodaz, eta agurtu eizuz zure aita-amak, eta zuek Errufi ta Kontxi ez eizue negar geiago egin. Zoriontsuak zarie olako seme zintzo, langile, adoretzu bat eukiteaz. Jon, zuen semea epe laburrean gure artean osasuntsu ta dirudun izango da, barriro gure artean izango da. Legortu eizuez zuen begiak eta alaitu zuen aurpegiak.

Onelako gertarea, jazokisunetan, bearrezko diran ama guztien aolkuak entzunda, adiskide

biak mandoa trailan ebela, Uri-nagusirantz abiatu ziran.

Gailurretxe alboko estratik bera aran, ibar barrena zearkatzen eban errekatxua beste-alderatuta, aurrez-aurrez aurkitzen zan mendiska magalera gure mutilak beingoan eldu ziran, Jon eta Migeltxu eldu ziran.

Bidalian Jonek, Mirenengan gogoratuz bein eta barriro Leizatxurantz begiratzen eban. Jonek ba ekian ordu aretan Mirentxu, bere maitea, bere etxean zutik bere erbesteratzea negartzen zala. Beragaitik, ain maite eben neskatila errugabe, errukigarria nekatzen, oiñazez betarik zala jakiteak, ziur zan orretzaz, bera be, Jon be, nekaldi, atsekabedun, bere biotza mindua urratzen ebana gogoan zorgorturik menperakoi bidegilea zan.

Ostera Migeltxu, beti bezela, txantxelari, alai agertzen jakon, bere biotz, biotz barnean, Migeltxun gogoa jota izan arren, bera itxuraz alai, txantxelari bere lagun eta adiskidearen aurrean agerturik, iñotsan, bere bidalikideari iñotsan.

Aurrera nire adiskide maitea!... Ameriketako lurralde orreik geroago ta urbilago doguz eta... aurrera Jon.

Baiña Migeltxu, zer diraustazu, ondiño etxetik urten baño ez dogu egin eta, Jonek erantzun eutsan.

Orretxegaitik ba Jon, gogorrena eginda

dozu. Etxetik, norberan etxetik erbesteratzeko, orixe da gogorrena. Itxaroten zaitun itxas zabal, ia muga-gabeko ori, etxetik urtekeran izan zaran baño nasaia, etorkisun alaiago bat ikusiaz zearkatuko dazu, Migeltxuk, Jon poz-alaitu naian iñotsan.

Egia da, etxetik urtetea, nire etxetik urtetea, guztiz gogorra egin jat. Bein baño gaiagotan nire erabagia, Ameriketarako erbesteratzea, aberastu amesak, guztia ankaz-gora botatzeko egonaz, Jonek abots makal, ilunez iñoan.

Jonentzat ain maitagarria zan arantetik urruntzean, bikotea igoten ziran mendiska gailurra igarota beste mendi magaletik beraz joiazala, Urtzoka erritxuko etxeak estaltzen asi ziranean, Jonen biotz-barnea makaltzen zala ikusirik, Migeltxuk abots alai, maitekiroz, iñotsan.

Ara Jon, an urrunean Zumurdiko leenengo etxeak beingoan ikusiko doguz, eleizako dorrea gaiñerutzen dauan kurutzea ez dozu ikusten?, bertara eltzeko ordu bete inguruko bidea dogu. Zumurdira elgu orduko amaikak izango dira, sasoi polita koputxu bat jateko, amaikatakoea egiteko, nik, egia esan, gose apur bat ba dot, urdaila karraskada daukat, Migeltxuk Joneri esan eutsan.

Nik goserik ez dot, baiña atsedean apur bat artzeko guraria bai, Jonek erantzun eutsan.

Zumurdirantz urreratzen zirala, mendiska

barrenean pagodi abarotsu baten egoan iturritxuan zurrutada ur ozkirri gozoaz egiten geratu ziran, mandoa be egarriturik egoan, bide-batez atsedean txiki bat artu eben.

Barreka, irribarreka Migeltxuk, Joneri iñotsan.

Ementxe berton Iraileko Andra Mari egunean, illuntzean Zumurdiko jaietatik etxerantz goiazala, Azkarreko Jone, neskatil gazteari, sekulako arrapadea egin neutsan... eta berak belarrondoko aundiago bat emon eustan... ja! ja! ja!...

Bereala bikotea mandoa lagun ebal, bidalian izan ziran, eta uste izan eben lez, Zumurdiko eleiz-dorrean egoan ordulariak amaikak jo ebazanean, erri beratako leenen etxeak zearkatu ebezana. Zuze-zuen, artez-arte Lukasen edantegi, taberanara, nora ez ba, abiatu, unetxu bat geroago Lukasen edantegiko atarian aurkitu ziran.

Aup! aup! ez da iñor emen bizia ala?, etxe aurreko matsar zutoin baten mandoa lotutzen eban bitartean, oiuka Migeltxuk esan eban.

Egun-on mutilak, zer dabilzue emendik? bakez zatoze?... ardao-saltzaileak iñotsen.

Egun-on zeure be, bikoteak erantzun eta Migeltxuk jarraitu eban.

Bidali luzea daroagu ta, amaikatakoea ementxe jatea erabagi dogu. Txakolin gorri polita daukazula esan dauskue... baiña ez dakit ba, genteak guzur ugari esaten dau ta...



Oraingoan egi berebila esan dautsue, sekulako txakolin bai gorri ta zuria guztiz bikaiñiak, obeagotu ezifnekoak daukadaz, taberneruak erantzun eutsan.

Olan ba da kuartilotxu bat txakolin gorri atara eiskizu. Txokoliña ta ura auzokide alkar-tu ezifnekoak dira ta, ostera ardao eskatzen ez naz ausartzen... iturria emendik guztiz urbil daukazu ta...

Migeltxuk, txantxelari, ardao-saltzailea zirikatze naian, esan eutsan.

Ez ba, azpaldian olako naasterik ez dot egin, gaur-egun duakadan ardoari ura naastatzea, oben ikaragarri, nagusi bat egitea da... bera be, txdantxelari taberneruak erantzun eban.

Beste alde batetik ba dakizue ni kristau zintzo, bene-benetako bat nazala..., jarraitu eban.

Ori izanik Lukas, eta nik ez dot zalantzan ezartzen, zeruko atea leenengo igarako dauazan ardao-saltailea, zu izango zara.

Orain urte bete inguru Anbrus Urtzoka erritxuko erriko-tabernakoa il zala jakitun izango zara, ez?. Ba iru bat ile-bete da Anbrusek Urtzokako abadeari gutun bat bialdu eutsola. Zuzen be, zuk leen esan dozun oben izugarri ori dala ta, au da ura ardaoaz naasturik saldu, Kepa Deunak zeruko atea zearkatzen debekatu, eragotzi eutsola, gutun orretan iñotsen.

Gutun orretan Anbrusek, samintasun eta bere bizitzan izan ez eban apaltasunez, abade

jaunari beragaitik otoitz egiela bere erritarrei eskatzen eutsan.

Erritarrak, Urtzokatarrak, batzarturik Anbrusen eskaria ontzat artuta, erantzuna beste gutun baten bialtzea erabagi eben. Gutun aretan, beragaitik biotz-biotzez otoitz egingo ebala iñotsen, baiña bere naia, au da zeruratzeta, baldintza bat bakarra bete bearko ebala, adierazoten eutsen.

Anbrusek bete bearreko baldintza bakarra au zan, berak, Anbrusek, bere erritaei, auzokidei, edan-azo eutsoen iturriko ur guztia edan bearko ebela. Zeruko atea zearkatu nai ba eban edan bearko ebala, iñotsen.

Bide-batez Kepa Deunari adierazorik, Anbruseri baldintza ori bete arte Zeruko atea zearkatzen ez zilegitzeko eskatzen eutsoen.

Esaldi luze au egin ondoren, Migeltxuk txakolin zurrutada bat eginda, Lukaseri iñotsan.

Oraingoan Lukas egia esan dauskuzu, txokoliña benetan polita da, gozoa da. Egarritsu izan nazalko ala, ez dakit, baiña guztiz gozoro edan dot. Beste Kuartilutxu bat atara eiskizu.

Artsenaldi onen ondoren gure bikote barriro euren bidalian zan. Uri Nagusiko kaiara eltze-ko bost bat orduko ibilaldia geratzen jaken. Amaikatakoak, eta batez be txakolin gorriak euren nekeak arindurik, oinkada luze bizkorragaz jarraitu eben.

Azkenego, euren bidaliaren azkenengo

mendi magaletik gorantz igotean, Jonek itxasontziratua bear eban kaia ikusi al izateko igon bear eben mendiskaren tontorrera eldutean, bertatik, mendiska tontorretik euren begien aurrean agertzen jaken ikuspegia, benetan zoragarri, liluragarria, iruditu jaken.

Itxas zabal, une aretan eurentzat, Jon eta Migeltxuntzat, muga gabea, Itxasalde politago eziñekoa. Zeru, ortzi urdiña bere izpi alai, pozgarriak dizdiraturik, mutilen gogo, biotz-barnea sekulako aunditasun, itzaltasunaren aurrean, sorgortuta geratu ziran. Leenengoz ikusten eben itxas liluragarri arek mutil, Jon eta Migeltxugan eragin eban biotz-ikara azaldu eziñekoa da. Gure mutilak ixil-ixillik luzaro geratuz, azkenean, beti lez, Migeltxuk euren ixilaldia eten eban, esanez.

Jon, Endika Errotatxikikogandik bein baño geiagotan, itxasoa guztiz eder, guztiz itzaltsua dala, entzunda nago, lurretik begiratuta muga-gabea iruditen zala, baiña egia esan, ez neban uste orrenbesterañokoa izango zanik. Jon, gauza ain arrigarri, neur-eziñeko, liluragarri guzti onein Egileagan, siñisten dot. Jaungoikoa bada, Jon, bai.

Jonek bere sorgortzean Migeltxun izketa, berbetea, erantzun gabe geratu zan, eta ixil-une barri baten ondoren bere lagunari esan eutsan.

Migeltxu, Jaungoikoaren izate zalantzan ez dot iñoiz izan, eta gaur bear ba da nire siñisme-

na sendoagotuta geratu da. Orain guztiz pozik naz, iñoiz baño pozago naz, artu dodan erabagi onegaitik, au da Ameriketara joateagaitik. Gurari bizi-bizi barri bat nire gogo, nire barnean sortu da. Itxas zabal ori zearkaturik, an urrun, guztiz asao egongo dan mugan zelako lurralde, gizarte, bizitza dagon ikusi, jakitea nai dot. Ordu bete barru, gitxi gora bera, uri orretan izango gara, goazen ba bizkor-bizkor.

Bai, ordu bi ta erdiak dira, edozelan be lauratarako bazkaldu al izando dogu, nire urdaila kezkatu da. Uriko kaia be ikusi al dot eta beratan, oker ez ba naz, itxasontzi bat dagola nabaritzen dot, ala Belarri!, au zan mandoaren izena, bizkortu zure anka zaar orrek, zu bere gose izango zara ta, Migeltxuk iñoan.

Migeltxu ta Jon uri-nagusira elduta, bertako kaiarantz euren iztar nekatuak abiatu ebezan, eta apur bat geroago kaia aurrean aurkitzen zan taberna-ostaetxe baten sartu ziran.

Arrastion, Migeltxuk ostataria agurtu eban.

Arrastion zuei be, erantzun dendalari-ostariak. Urrun, asaotik zatozela esan leiteke.

Bai, Urtzoka erritxutik gatoz, gaur goizean seiretan bertatik urtenda gara, eta apur bat nekatuta garan ezkerro, ementze berorren baimenagaz koputxu bat jaten geratuko gara, Jonek esan eban.

Zer da berroren, berori ori, baztertu eizue izketa-bide ori, zu eta kitu. Nire baimena

dozue, zelan ez, zeuk nai dozuen tokian jezarrri bazkaltzeko, mandontzat be or etxe ostean korta eder bat daukat eta bertan jan eta atsedean apur bat artu lei, ostatariak esan eutsen.

Eskerrik asko, orixe ber-berr ori egingo dogu. Leenen-leen mandoa kortaratu ta jaten emon, eta gero orreitarako mai baten geuk be geure urdailakaz bakean izateko zerbait jan. Txakoliña eukiko dozu, ez?, Migeltxuk esan eutsan.

Bai, txakoliña ta beraz txakolin zuria atara eiguzu ba, mairantz abiaturik, Migeltxuk iñotsan.

Maiatariko baten gure mutilak jezarrita jakizorrotik, Kontxik aurreko gabeen ogi baten barnean gertuko arrautz-opil ederra, mai ganean jarririk, euren urdailakaz bakeak egitera saiatu ziran.

Bidaliak eraginda gorputzan nekea, ta urdai-lean gosea izanik, ogi-tartekoa jan ez, irunsi egiten eben. Jakia legorra zan ezkerro txakolin-kuartilotxua beingoan amaitu eben, utxitu eben.

Zu... mezedez...

Kepa da nire izena, ostatariak Migeltxun berbaldia eten eban.

Zu Kepa, mezedez beste kuartilotxu bat atara eiskizu, pitxar onek nonbaiten, ariñegi utxitu da ta, zulotxu anbat euki bear dau, Migeltxuk txantxelari esan eutsan.

Gure bikoteak euren gosea makaldu naian, arrautz-opil jan ondoren lukainka, txorixoa bana ta gaztai zati eder bat be urdaileratu bear izan eben. Jan-edaria amaitu ondoren, Migeltxuk bere lagunari esan eutsan.

Oranin akeite eta txolatxu bana be ertu bear dogu. Leengo arratsaldean soloan jorran egin eban lanagaitik emon eustan a-logorako diruak ementxe dodaz eta dana neuk ordaintzen dot.

Mila esker Migeltxu, baina... leenago edo geroago, neureak ezango ziran txanponak dira, Jonek be txantxelari, ta barreka esan eutzan.

Olantxe da, Jon, eta gertaera arrigari, sekulakorik, ordaintze onegaz ez dot egiten Migeltxuk, bera be barreka, erantzun eutzan.

Migeltxu txiro ta etorri urriko ba zan, baina baita esku-zabal, biotz onekoa.

Bazkaldu ondoren ardosaltzailea be mutil biakaz batuta luzaro alkar-izketan jardun ziran. Ostataria nonzebarri utsa izanik, izketaldi une baten mutilei itaundu eutsen.

Uri au da zuen bidaliaren elmuga, ala ibilaldian jarraitzeko asmu dozue?. Emen geratzeko uste dozue?.

Ez ba, Migeltxuk erantzun eutsan, nire lagunak Ameriketara joan nai dau, ta emengo kaian itxasontziratzea, ni osteroa Urtzoka geure erri-txura itzuliko naz.

Biar iluntzean Ameriketarantz urtengo dauan itxasontzia, or kaian ikusten dozuen ori

da, ta bertako Nagusi, Kapitana, edantegi onetara, egunero egiten dauan lez, laster etorriko dala, uste dot, ostararian iñotsen.

Eta alan izan zan, arik asti laburrera, gizon gazte, sasoiko, sendo, ardao zalea dala agertzen eban aurpegidun bat, edantegian, bertako biztanleak arrastion abots saratsuaz agurtuz, edantegian sartu zan.

Irukotea berbetan egoan mai beratara urreraturik eta pitxar aundi bat txakolin atara egiala taberneruari eskatuz, mai beratan, mutilak egozan mai beratan jesarri zan. Maikideratu zan.

Mutilak askaldu dozue? kapitanak Jon eta Migeltxuri iñotsen.

Bai ba, gaurko atasea beintzat baztertu dogu, mutilak erantzun,-

Jarraian laukotea alkar-izketan luzero jardun ziran. Berbaldian zear, edantegiko nagusiak, ardao-saltzaileak, albo-erriko mutil bi arein bidaliaren zio bakarra zein zan kapinari adierazo eutsan, esanez.

Urtzokatar gazte oneik, bata Ameriketara joateko gurariaz eta bestea bera laguntzen, Urtzokatik gure urira etorri dira. Au gazte au, Jon deritxona indianotarra izan nai dauan gaztea da, ta beste, Migeltxu deritxona bere laguntzile ta erritarra.

Kontxo.. Kontxo!... kapitanak bere baitan iñoan, ara non itxasontzian bear dodan langilea,

non aurkitzen dodan.., eta maikedei Jonegana begiratzuz, esan eutsen.

Jon, nik gidaritzen dodan itxasontzia biar eguerdiko amabi-amabietan, ordu orretan itxas-gora da ta, nik gidaritzen dodan itxasontzia itxasoratuko da. Itxasgizon lankide baten utsa, itxasontzian lankide baten utsa dot, eta zeuk nai ba dozu lantoki ori zeuk bete zeinke. Janari, eguneroko elikatzea eta ostaruaren gainera, bost errial egunero alogora bezela eskuratu al izango dozu.

Jauna berorren, zure eskaintza guztiz ontzat artzen dot, eta nigan jarri dozun entzimenari dagokion lagile, zintzotasun eta adiskidetasunaz erantzungo dausat, mila esker, Jonek biotz-ikaraz erantzun eutsan.

Olan izanik, biar goizean zortziretan ontziganean egon zaitez, itxaroten zaitut, agur.

Beste barik kapitana kaiarantz abiatu zan.

Bereala Jon eta Migeltxu uria ezagutzeko asmuz, atsedendu ondoren apur bat nasai ta pozago, kale artetik zear alkar-izketa mamintzuan joiazan.

Nekazari erritar mutilak, ango argi, oparotasun, ango denda salgai ugariak bai oiñetako, soiñeko, txapel, jan-edari, naiz lurgintza zein etxe tresna, abere janari ta abere-estalkiakaz, arrituta geratu ziran.

Migeltxu, emen uritarrentzat eta baita kanpo, albo-errietakoentzat be, zer erosi ugari

dago, dirua ez eukitea eragozpen bakarra eurentzat izango da.

Zer diraustazu, dirua... Jon, ortxe bertan aurrez-aurrez diru-etxea be ba daukie? Eta beraz aundi, argi, beiratsua, Migeltxuk bere lagunari iñotsan.

Lurgintza ta abere-estalki ta guztitariko tresnak saltzen ziran denda aurrean, Jon eta Migeltxu erakus-tokian agertzen ziran salgaiak ikusten luzaro jardun eben, eta une baten Migeltxu dendako atetik barnera be oinkada bat edo beste emon ebazan. Dendalariak, "ez-jakin" nekazari mutilakaz barre apur bat egiteko aukera polita ebala ta, esan eutsen.

Aurrera, mutilak, aurrera. Zer erosi nai dozue? Zuek nai dozuena, ziur, emen aurkituko dozue.

Ez dakit bat, ez dakit ba... Ez dot ikusten ba... ez dot ikusten, Migeltxuk txantxelari abotsez, bere baitan asmatuz, ikusiko dogu emen nor dan "ezjakiña", erantzun eutsan.

Denda onetan guztirako tresnak dagoz, sartu zaiteze, aurrera, dendalariak mutilakanantz urreraturik, diñotse.

Ba jauna, alde guztitara begiratu arren, denda alde guztitara begiratu arren, ez dot ikusten nik nai dodana ba, Migeltxuk barriro erantzun.

Ba mutilak, zer nai dozue ba?, dendalariak itaundu eutsen.

Ba jauna, nik idi bikote naiko alperra daukat, eta eurak bizkortzeko akulu eder bat gura neuke erosi, Migeltxuk erantzun, eta emen tresna ori ez dot ikusten.

Ederra emon dautsok, Migeltxu, Jonek bere lagunari esan eutsan. Nekazariak bai, baiña ez adimengabeak, adimenduak baño. Zer uste dabe uritar oneik ba!...

Uriko eleiz baten aurretik igarotean, beratan barneraturik, Andra Mari Donearen irudi aurrean belaunikotuta, otoitz egin eben, otoi sutsu bero-beroa, Jonek bidali guztiz ona ta itzulte obeagoa izan egian, egin eben.

Eguna iluntzera joian eta ostaetxera itzulte erabirik, bertarantz abiatu ziran.

Ostaetxera eldu ziranean, ostataria euren begira, zain egoan, eta sekulako txopetako, geli-saltza gertuta eukan, eta mutil gaztei, iñotsen.

Zelan izan zaria uri onetako kaleetatik?, uria zeuen guztokoa izan jatsue?

Bai jauna, uria aundi ta eder, polita da, kale-etan denda ugari, jan-edari ta soiñeko-oifietako, ta guztitarilo tresnakaz ondo ordinuta, Jonek erantzun eutsan.

Orduan oinkada asko emon ba dozue, ta ezer jan ez, gose be izango zarie ta, jesarri, nai-dozuen maian jesarri zaiteze. Txakolin apur bat eta kazuelatxu bat be gertu dautsuet eta..., ostatariak, mai-zapia ipinten eban bitartean, esan eutsen.

Mutilak ain beste adikotasun, begikotasunegaz guztiz arrituta egozan, erri, urian, isekari bateaz topo egin ba eben, beste gizon adikor, maitekor bat be, euren zorionerako, ostarian aurkitu eben.

Mutilak maian jzarri ziran eta bereala ostariak lurrunetan egoan kazuela aundi bat, txopetako, geli-saltza gozo, sekulakoa atara eutsen, mai ganean jarri eban. Beingoan janari alboan ogi ta pitxer nagusi, aundi bat txakolin zuri be jarririk.

Mutilak "sake" onekoak ziran eta beingoan kazuelatxua iruntzi eben. Txakoliña, pitxer txakoliña amaitze arren edo, gaztai zati eder bat ostatariak atara eutsen. Gure bikotea gabeen lo nasai, gozoro egiteko bezela geratu zirala, uste dot.

Biramonean goiztar jagitearren, mutilak beingoan ogeraturik, gaba osoan nasai, gozoro lo egin eben. Izartu orduko euren dagozkionak zorrotxuetan sartu eta bereala tabernara jaitsi ziran.

Mutilak baño goiztarrago kapitana izan zan, beragaz tabernan topo egiñik, arek agurtu esanez.

Egunon mutilak, zer lo ondo egin dozue?.

Bai jauna, ederto. Lo ta atsedendu ondoren orain gizon barri batzuk gara. Migeltxuk erantzun eutsan.

Orain gozaldtu ta beingoan itxasontzirantz

abiatu bearko gara. Zu Migeltxu iñoiz itxasontzi-barnean egon zara, ikusi dozu?, Kapitanak itaundu eutsan.

Jauna, ez ba, kanpotik be atzorarte itxasontzirik nire begiak ez dabe ikusi, izan be Urtzoka araneke errekatxutik ez dira ibiltentaa..., iribarreka Migeltxuk erantzun eutsan.

Ba, zeuk gura ba dozu gaur ikusi al zeinke. Zatoz zu be gugaz, etorri zaitetz, erdu gugaz, uste dot guztako jatsula, Kapitanak iñotsan.

Eta zu Txomin, Txomin ardaosaltzailea zan, mutil onein ostatua, jan-edari guztiak eta baita be mandonak be, neuk ordinduko dodaz, Kapitanak taberneruari esan eutsan.

Mila esker jauna, gugaitik egiten dozun guztiagaitik. Zuganako gure esker ona gure gogoretan beti izango da, Jonek abots apal, maitekiroz, esan eutsan.

Ostatariak Jon eta Migeltxuri azpilkada bana, arrautz prejitu, lukinka ta urdai-azpiko zati ederrakaz, atara eutsen.

Jakiei leguntzeko, beste kuartillotxu bat txakolin be, ostatariak, gazteak jaten egozan maian ezarririk.

Mutilak jan edarien atasea, jan-edaten atasea, beingoan amaitu eben, eta bereala Kapitana lagun ebela, irukotea kairantz abiatu zan.

Migeltxu itxasontzi barrutik, bere barnea arakatzen eban bitartean, Jon Kapitana ta beste itxasgizon bat lagun ebala, eurakandik bere

bearkuntz, egin-bearrak zeintzuk ziran jakin-azoten saiatzan zan.

Orrexek dira zunzen be, Jon itxasontzian Ameriketara eldu arte izango dozuzan egin-bear guztiak, ta euren jakitun zaran ezkerero, joan zeinteko zure lagunagaz urbildu, batzera, baiña amaikak eta erdietan ementxe, bertan, egon bearko zara.

Migeltxu ta Jon itxasontzi batek eukazan tresna, biltoki, soto, zamategi, oial, aiz-oial, jaki-edari-gela, logelak, ainbeste aiz-oial, soka, soka-lodi ikusi eta, guztiz arrituta geratu ziran.

Itxas-gizonak, zu bidali onetan ori izango zara, ba daukazue, bai nondik ibili, zer egin, ba daukazue emen zegaz laketu, Migeltxuk bere lagunari esan eutsan.

Bai, orrelan ibilaldia poz, alaiago egingo jat, nire oldoz-aldiak laburragoak izango dira, Jonek erantzun eutsan.

Gure bikoteari goiz aretako orduak arin joakezan. Amaikak eta erdietan, itxasontziko nagusiak, Kapitanak langilekidei bakoitza bere lekua egoteko, jarri eitezela, deia egin eutsen.

Gure mutilak, Jon eta Migeltxu banatzeko une larri aretan alkarrei zer esan ez jakiñik, sorgortuta, naigabez sorgorturik, ixil-aldi labur bat izan eben.

Beti bezela Migeltxuk ixil-aldia eten da, bere lagunari iñotsan.

Jon, Ameriketara eltzen zaranean lenbait len,

astirik galdu barik, idatziko dauskuzula uste dot.

Nire aldetik, erri ta alboerrietan, eta zelan ez, Mirentxutzaz, zer jazoten dan guztia jakin-azoko dautsut.

Agur ba... eta alaitu zure aurpegi ori... itxa-soak zure negar malkorik ez dau bear. Itxasoa edari ugarien jabe da, agur...

Agur Migeltxu, mila esker zure laguntzagaitik. Nire arima, gogoan toki berezian ezarrita beti izango zara...

Agur Migeltxu... agur...

Buruak makur, naigabe, samin, atsekabez biotz, adore, kemena jota, begiak negar malkoz ezotuta, Urtzokatar adiskide, adiskide zintzo biak, agurtu, alkar agurtuta banandu ziran.

Migeltxu lurreratu zan, eta Jon arterago Kapitanak izendatu eban lekurantz urreratuta, itxasontzia Amerikarantz abiatzeko gertu egoan.

Alan jazo zan, amabi amabietan aiz-oil, trin- ket, artain, balistoi, beko-zapiak, aize bare batek astindurik, gure nekazarientzat ikuspegi aitzu-eziñeko bat euren begien aurrean agertu jaken.

Aize-indarrak eraginda itxas-ontzia gerdiro geldiro, astiro astiro, lurretik, kaiatik, aldendu- ta itxasoratzen joian.

Migueltxu geldi geldi, tinko, bere eskuaz, ontzi-bizkarrean ber-bera egiten eban mutilla

agurtzen, ariketa itxas zabalean bere ikusmena galdu arte, kaian geratu zan. Agur Jon! Agur... Arrebeak, bere arrebeak, kututasunez lagundu eutsan esku-zapia prakako sakeletaik atera, eta ezoturik eukazan legortu ondoren, ostaetxerantz abiatu zan.

Migeltxu, Kapitana ta ostarariaren aurrean bizkarkin agertze ezte arren edo, ostaetxera joan bearrean, kaiako beste edantegi baten sarturik, zorrotxuan geratzen jakon lukainkatariko bat beste ogi zatia bateaz jan eban. Jaki legor au bustitzeko kuartilotxu bat txakolin taberneruari eskatu eutsan.

Orain bai, bere urdaila atzipetuta, apur bat nasaiago ostaetxera joan zan, ilundu baño leenago Zumurdira eldu nai ebalta ta, kortan egoan mandoa trailan artuta, tabernerua bein eta barrero eskerturik, alkar agurtu ziran.

Bitartean Jon itxasontzian, Kapitanak adierazi eutsozan lanak, zintzo, arduratsu betetzen saiatzen zan. Ori bai, nozean-beinka lurrerantz begiratzen geratuz, guztiz oldozkor, minbera, biotz-bera bere begiak ezotzen jakozan.

Olako une baten, euskalerriko, bere aberriko azkenengo lurraldeak ikusten ziran asti baten, Kapitanak esan eutsan.

Zer, politak dira benetan bai, gure lurraldeak ez?


Bai, benetan dira polit, ederrak eusko lurral-

deak, ezin liluragarriagoak, biotz-mindurik, Jonek erantzun eutsan.

Bai, gazte, an asao, guztiz urrun, erbestean lurralde oneikaz ames, oldozkor zaranean, zeure begiakaz, bekokipeko begiakaz ikusi ezin dozuzanean, zure barne, irudimen, asmamen begiakaz lurralde oneik begistatzen dozuzanean, orduan askoz be polit, ederragoak irudiko jatzuz.

Ameriketarako bitartea Joneri ez jakon astun, gogorregia izan. Ekaitz, Itxas-asarrerik, esatekorik beintzat, ez eben izan. Itxas-aldi luzean, barealdi labur batzuk bidalia atseratu eben, baiña egunak joan egunak etorri, eragozpen gogor, zuzendu-eziñekorik agertu ez jaken ezkerro, Ameriketara eurak uste eben baiña leenago eldu ziran.

Jonek bere lanari, itxasontzian egin eban



Jon erbesteratzeko ontziratu zan kaia ta itxas-ontzia.



lanari egokion dirua kapitanean eskutik artu ondoren, bein eta barriro itxas-ontziko Nagusia eskertu ta besakartuz agurturik, banandu ziran.

Kapitana ta Jonen artean adiskidetasun zintzo-zintzo bat sortu zan. Adiskidetasun orren ondorioz Kapitanak Joneri, lurreratu ziran uriko gizon ospetsu, ospetsu dirutsua zalako, gomendiozko gutun bat emon eutsan, esanez.

Jon, alik leenen gizon onegan aurkeztu zaitetz, bere laguntza zuretzat guztiz onuragarria izan leiteke... ez ziur naz, izango da.

Bai, zeuk diraustazun bezela egingo dot. Gaurko eguna ilundu baño leenago gizon orren aurrean izango naz, eta nire jokaera beragaz, azkenengo ileetan izan dan bezelakoa izango da, barriro mila esker eta Jaungoikoak zaindu, jagon zagizala, agur, Jonek bere begiak erdiezotuta zirala esan eutsan.

Jonek Ameriketar lurraldea minperaturik, urigune barnerantz joiala bere baitan iñoan.

Ara, Ameriketara eltzean nire egoera, uste neban baño askoz argi, pozago, itxaronpetsua da, itxaroten neban baño askoz alai, itxaropen-tsua ikusirik, nire kemen nire adorea be, bizkortu da. Nire sakelean, diruzorrotxuan, uste neban baño txanpon geiago daukat, Kapitanak emon daustan gutun au be onuragarria izango jatala, ziur naz.

Argi dago, Jonek iñoan, nire aita-amak, nire sendi ta zelan ez Mirentzu nire maitearen otoi-

tzak, Andra Mari Birgiñagandik entzunak izan dira.

Olakotxea zan Jon, sifistedun, fededun bero, sutsu-sutsuduna.

Mutil deduzko, langile, zintzo baten biotzean olako egoera poz-alaituak eragiten dauan adore, kemenaz beterik, Jon Kapitanak emon eutsan gutunaren zuzenbiderantz abiaturik, kaleak zearkatuz Uri-gunean egozan denda ta edantegi ugari ta dotoreakaz arrituta, bilatzen eban zuzenbidera eldu zan.

Ager-toki ugari, argi, oparotsuak eukazan etxe aundi baten, Kapitanak emon eutsan gomendio-gutunaz aurkeztu bear eban jaunaren izena argi dizdiratsu batzuk kalea argiturik, jaun au gizon itzaltzu, dirutsua zala, zalantza gabe nabaritzen zan.

On Emeterio Bardesi, au zan gure gure zaldunaren izena, garazketa ugaridun amerikatar gizon ospetsu, dirutsu, aberatsa. Bere aita, Durangotarra bera, gazte zala bere osaba batek deiturik, erbesteratua izan zan. Batxi, On Emeterion aita, gizon urduri, emeslariak, gazte gaztetxutik griña, zaletasun bizi-bizi bat eban, garazlari zaletasuna. Griña onek eraginda, urte batzutan Amerikatarako lurraldetan artzain eta esku-lan ugari egin ondoren, guztitariko jan edari, oial, oiñatako, garbiagaiak saltzen ziran denda bat eraturik, aldi laburrean dirutsa izugarria eskuratuta, bere seme bakarra Emeterio

lagun ebalata bere laguntzaz, lurgintza arrantzata ta itxasontzientarako guztitariko tresnak saltzen ziran denda barri batzukaz jabetu zan. On Batxi zaartu zanean, bere seme bakar On Emeterio, aren ondasunen oinibar geraturik, eta bere be garezlari trebea zan ezkerero, bere aitaren ondasunaren ganera ondasun bereziak pilotu ebazan.

Jonek On Emeterio jaunagandik arrera ezin obea izan eban. Luzaro alkarizketan jardun ondoren gure mutila, lurgintza lanetarako ziran tresnak mandioratzen ziran biltoki aundi baten arduadunaren laguntzaile bezela Ameriketara bere lana egin eban. Eguneroko saria, alogera, sei errial, ostatu, jan-edari ta oiñetako-soiñetakoak izanik.

Ez da ba arritzekoa, Jon guztiz pozik, alai, zoriontsu izatea. Bere jabetasun guztiak eukazan zorrotxua lepoan eroala, arik aurrera bere egoitza izango zan etxeko logelara sartu zanean, biotz-eragin guztiz ezbargiñak izan ebazan. Gela naiko edatsu, garbi, oge burusi ta bururdin zuriakaz ondo orniduta, mai txikitxu bat. Itxuraz Gailuretxeko bere logela baño askoz polit, eder, bikaiñagoa, ostera guzti oneik Jonen biotza alaitu, poztu bearrean, bertan nabaritzen zan otz, ixiltasunak, erri-min larri, kezkatua sortu eban.

Jonek zorrotxuan eroazan gauza guztiak atera ta logelako alase aundi baten erabidez, mutil

zeatz bateri dagokion bezela, jarri ebazan. An agertu ziran gailurretxeko sendi ta Mirentxuren argazki batzuk, eta eurak bein eta barrero muzukatuz, bere biotz-barnea apur bat bizkortzea lortu eban.

Lenengo egunak, Ameriketako lenengo egunak, Jonek lantegiko lan, bere eginbearrak ikasten eta lankideak ezagutzen emon ebazan, eta bere biotz, bere gogotik erri-miña, etxemiña aldatze eziñekoa izan arren, bere egoera oiturazkoa zan.

Errira iru gutun bialdu, bere aita-amari, bere adiskide zintzo Migeltxuri ta zelan ez, Mirentxu bere maiterari. Jon iru gutun orrean erantzuna begira, zain, leiatsu, itxaropentsu zan ezkerero, bere egoera be nasaitu zan.

Bere oldozketatan, bere amesetatan Jonek bere baitan iñoan. Itxasontzia Amotzkako kaiara onen egunetan apur bat gora-bera elduko da.

Amotzka lurraldeen izena da, ziur-ziur urrengo egunean, lurrin-ontzia kaiaratuko biramonean, Juan Luis nire erritar gutun-banatzaille zintzoa, zeregin orretarako daukan zorrotxua lepoan Gailuretxeko atarian aupadaka izango da, Errufiño! Kontxi! Ameriketako albisteak doguz!...

Arrastion Juan-Luis, leiatsu itxaroten genduzan albisteak... baiña erdu, igon zaitetz sukalde, suetara ta txakolin ozkirri apur bat edan eizu, Jonen amak iñotsan.

Ez, gaur ez, beste egun baten izango da Kontxi, gaur lan geiegi dot eta ilundu baño leenago amaitu nai ba dot, nire lana amaitu gura ba dot, bizkor ibili bearko naz...Aaa! Mirentxu ta Migeltxuntzat be ba dago gutun bana, agur.

Onek ziran gure mutilaren amesak, amesetak bai, baiña bere gogo, bere biotz barnea, poztu, bizkortu, alaitu egiten eben amesak, bai.

Aldi batzutan aita-ama, bere sendiari, Mirentxu ta Migeltxuri idatzi bear izaten ebazan gutunak, eta beste batzutan bere erritik izango ebazan barri onen itxaronkorrak, Jonen gogo, arimean eragiten ebazan unkitze-aldi, biotzikara, ames-aldi gozoro, atsegintsua, Jonen egoera sendotzeko, bere bizia eroapenez bete ta gogor aurrera jarraitzeko, janari bereziak ziran.

Jonek bere egin-bearrak zintzo betetzen ebazan, eta On Emeterio bere nagusia mutilaren egoitzpen guztiz onuragarria egokion. Jonek On Emeterion adiskidetasuna lortu eban, bere lan, izakera deduzko, zindo, zintzoaz Jonek bere nagusiaren uste ososa be jaretsirik, arrotz lurralde aretako bizi-bidea pozik, alai eroan.

Baina..., ludi, mundu onetan zorion-utsa lortzea guztiz zaila da ta, Bardesi sendiaz eban adiskidetasuna dala ta, arazo gogor bat sortu jakon.

On Emeterio ta Isabelek, andra-gizonak, iru seme-alaba ebezan, neskatil bi ta mutil bat.

Neskatilatariko gazteena, Irene, ogei urte inguruko neskatil gazte lirain, aurpegi bigun, guri, begi urdin, ule kirru txorta bi sorbalda ganetik dondilizkaduna, edozein mutil gaztentzat gurari gozagarria Jonen lantoki ber-beratan, biltoki beratan, lan egiten eban. Leenengo neska-mutil onen arremanak otzak, arruntak ba ziran, apurka-apurka, egunak eta asteak aurrera joanez, euren adiskidetasuna geroago ta kutunagoa zan. Jonentzat egoera guztiz larri, kezkatua, Jonek Mirentxu iñoiz baño be geiago maite eban, jaiotze erritir urrun, asaotasunean, Jonek, Miren kutuntasunez gogoratzen eban. Orrez ganera beragandik, Mirenegandik, urruntzean emon eutsan itz, berbea, zelan ukatu?. Ez, nire ein arazodun oneri erabagi zentzuduna emon bear jako, Bardesi sendiaz nire jokaera, egintza, gizonki, zindotasunez izan bear dau, Jonek bere baitan iñoan.

Baiña Jonen erabagiatzaz jardun baño leenago, Urtzoka erritxuan, eta batez be Gailurretxe eta eleizalde basetxetan zer jazoten zan jakin dagigun.

Gailurretxen Errufiño ta Kontxi, Jon maitea, seme maitea, erbesteratu zanetik, guztiz arduratsu, kezkatu bizi dira. Sendia, euren sendia, elikatze arazo ugari ba ebezan, orain Errufiño ta Kontxi arazoak aundiagoturik ebezan. Egunero goiz, arrasti zein gaba, bardin zan, Jon Ameriketarra beti eben euren gogoetan eta

baita be eurren alkar-izketan. Eskerrak Migeltxu andra-gizon errukagarri oneikaz gogoraturik, sarritan eurak ikusten joaten zala. Migeltxu beti aldarte, umore onean, bere txantxa ta urtekerak barregarriakaz Gailurretzeko biztanleen bizitza bizkortu, alaitzen eban.

Alako egun baten, arrasti sargori eguzkitsu baten, arratsaldero egiten eban bezela erriko-tabernara mus-aldi egiten joan baño leenago, Gailurretxe aurrean kerezpean atsedean apur bet gozatzen egozan Errufiño ta Kontxi, andra-gizonarengana urraratu zan. Irukote onek, Migeltxu ta Gailurretzeko andra-gizonaren alkar-izketa guztiz pozgarri, alaia zan. Migeltxun txantxa ta esakera barre ugari eragin eutsen.

Alkar-izketa une baten, Migeltxuk bere bazarkidei esan eutsen.

Ba dakizue Errufiño ta Kontxi, joan dan egunean, zuzen be Korpuz egunean, Patxo Txintxumekori zer jazo jakon?.

Ba ez, Errufiñok erantzun eutsan, zer jazo jakon ba?.

Egun ori, Korpuz-eguna jai ospetsu, erritarrentzat jai garrantzitsua da, Egun orretan, jai egun orretan, erriko abade jaunak, On Martze-liñok, erriko iru edo lau beartsuenei, txiroenei, bere etxean, abadenean jateko, bazkaltzeko dei egin eutsen.

Bazkalkidetariko bat Patxo Txintxuneko

izan zan. Patxok, bere antzera beti erdi-gosez zan seme bat eban eta abaden etxera bazkaltzera deitu ez izan-arren, jatordu orretara eroatea nai eban. Semeak be berak bezela betekada bateaz egun batzutarako gosea arindu egian.

Bazkal ordua eldu zan, maikideak mai inguruan jezarri ziran, abade jauna mai-buruan zala jarri ziran. Oiturazko dan lez, eta abade baten etxean ondiño geiago, jaten asi baño leenago, janariak, jakiak, bendeikatu bear ziran.

Patxo!, mai-burutik abade jaunak gure gizonari esan eutsan, mai onetako jakiak, bereala jango doguzan janariak, bedeinkatu eizuz, arren.

Patxo olako gertaeratan egiten dan otoitza asi eban esanez, "Emen orain artuko doguzan janedariak bedeinkatu bedi Jauna, Aitaren eta Espiritu Santuaren izenean..."

Zu Patxo, mai-burutik abade jaunak geldiarazo eutsan bere otoitza, semea non itxi dozu, ba?, Semea?.

Arraio, arraioa, baita egia, izan be... eta berealaxe jan-gelako leiotik burua atera ta leiopanean egoan bere semeari deitu eutsan.

Seme, abade jaunak zure utsa sumatu dau, etorri zaitetz bazkaltzen, erdu ona.

Aita semeak, Patxo ta bere semeak, egun batzutarako euren urdailak ixildu ebezan.

Errufiño ta Kontxik barre saratatsuz, Migeltxun txatxeta au artu eban.

Mirentxugana be Migeltxu sarritan joaten zan. Atsegin izaten jakon beragaz alkar-izketa luzeak egitea. Euren alkar-izketa gaia Jon zan ezkerro, Jonetzaz jarduten eben ezkerro izketan, Mirentxu be topaketa oneikaz pozik, alaitsu agertzen zan.

Arto-indaba ta naboak jorrazeko arratsalde bat baño geiagotan Mirentxuk, gure mutila alogeratu eban.

Alogerezko onek lan, bear, geiegirik ez eban egingo, baiña bere txantxa ta esakera barregarriakaz, neskatilatxua alaitu, poztu bai.

Mirentxu, ezkon-barri batzuri zer jazo jaken ba dakizu, bein baten Migeltxuk iñotsan.

Ez dakit ba, Migeltxu, zer jazo jaken ba?, Mirenek erantzun eutsan.

Ezkon-barriak ezkondu ondoren euren ibilaldia egin eben. Ezti-aldi zoriontsutik etxeratu ziran.

Etxeratu ziranean, leenengo egunean, goizaldean, gizona bere andrea izartu ez eiten ixiltxuan jagirik, etxea zeatz apindu eban, gozari bikaiña gertatu ta azpil polit baten ezarririk, bere andreari ogera eroan eutsan.

Ooo... neure gizon maitea!. Nabaritu zaitut sutean lanean. Zuk etxeko lanak egiten ba dakizu, polito egin dozuz. Mila esker laztana, mozukatuz andreak esan eutsan.

Bai, etxeko lanak egiten ondo dakidaz, gizonak erantzun. Baiña gaur egin dodana, ikas-

bidetzat ian daiten egin dot eta biartik aurrera, gure maitasuna eten ez daiten, lan guzti oneik zuk egin bearko dozuz.

Migeltxuk bere txantaldia irribarre maltzur bateaz amaitu, eten, eban.

Ez, ez Migeltxu, olakorik Jon nire gizon maiteari alkar-ekontzen garanean olakorik ez jako jazoko. Etxeko lana neure ardurea izango da. Berak, Jonek, ortu soloak zaindu ta abereak elikatu ta jagote lana naiko izango dau.

Migeltxu, Errufiño, Kontxi ta Mirenen nekaldia leundu, gozotu naian saiatzen zan bitartean, Jon Ameriketatan asmakisun, oldozketa, eten-gabeko gogoketa mingarri, garrantsi-tsuetan bizi zan. Bere aurrean bizi-bide barri bat agertzen jakon.

Ez, ez, Bardezi jaunaren sendiaren inguruan, nire etorkisuna ez dot jarri bear. Lantegi ta uri onetatik aldatu bear naz. Bardezi jauna ta bere sendia, benetan eskergarria da, ta orrexegaitik, zio ber-ber orregaitik, emendik alde egin bear dot. Ori bai, sendi txalogarri onegandik, nigan izan daben jokeragaitik, eurakaz beti zorrean izango naz, eurakan dodan adiskidetasuna eten gabe. Urruntitasunak eregiten dauan, adiskidetasunean eragiten dauan makaltasunean, emendik aurrera gure alkar-arremanak izan bear dabe.

Jon Ameriketatan zala, urte bat bete zan. Gure mutila, adinez mutila ba zan, egikeraz gizon

oso bat, langile, deduzko, ezagutzen eben danakandik gizon itzaltsu bat bezela begiratu ta maitatua zan. Ugari ebazan adiskide ta lagunak, guztia au baieztatzen eben. Au olan izanik, Jonek diru apur bat be aurreratu al izan eban, eta bizi-bide barri bat eratzeko, Amoztka uritik urrunki bizitza barri bat eratzeko, bere geroa itxaronkor eban.

Amoztka uritik ogeta amar bat kilometro urrun Matarkon erritxua, uri au be aurkitzen da, ogeta-amar mila biztanle ebezan uri polit, ederra. Nekazaritza euren bizibide bakarra eben erri txikiak inguratzen eben, uria au be, Amoztka, garazketa, sal-erosketarako berebi-ziakoa zan.

Martakon urian, bera bezela, Jon bezela Euskal Erritik antziña erbesteratu ziran andra-gizon euskotar baten semea abade eginda, beraz euskalduna, bertako eleiz baten erretore, parrokoa zan ezkeru, Jon Igandero mezea entzuten txirringa baten joaten zan.

On Andres, au zan Martakon uriko abadearen izena, Bardesi jaunaren dendara eleizarako tresna batzuk erosten joan zan egun baten, Jonek ezagutu eban. Bardesi jaunak ber-berak On Andreseri langile euskaldun bat lantegi beratan egoala adierazo eutsan, eta arik aurrera Jon eta abadea adiskide zintzoak ziran.

Adiskidetasun au Joneri bere bizi-bide barrian ederto etorkion. Jonek, abadeari zintzo

bere arazoa edestu eutsan.

Igandetan mezea entzun ondoren, abadeak Jon bazkaltzen bere etxera, abadenera eroaten eban. Egun aretan, bazkaldu ta gero, akeita artzen eben biztartean, Jonek abadeari iñotsan.

Ara jauna, arazo mingarri, gogor bat dot. Berorregaz aitortu bearzanean naz.

Ni neure erritxuan, Urtzokan, Gailurretxe deritxon basetxe txiroan, nire aita-ama ta anai-arrebeaz, nekazaritza saiatuz, lan gogor, neketxuan, sendia elikatzeko aiñako uztak lortzen ez genduzan eten-gabeko lanean, txirotasunean bizi nintzan. Lanbide gogor izugarri orregandik igeska ni ez nintzan erbesteratu. Iru anai-arreba izanik, batentzat, seme-alabatetik, iru seme-alabatetik batentzat uts-utsean, soilki, Gailuretxen egoan etorkisuna. Ni etorkisun orren bila lurralde onetara erbesteratu nintzan. Ain maite dodazan aita-ama, anai-arreba, adiskide, erritar ugari, lurralde maitagarri aretan itxi dodaz. Uritar orrein artean Miren deritxon neskatil deduzko, polit bat, maita-maite dot. Berari biziera oba bat opa naian erbesteraturik, esker-garri dan lurralde onetan pozik daroat bizitza. Bardesi jauna, eta baita be bere sendia aintzindari berezia izan da nire bizitza barri onetan. On Emeterio ta Isabelen sendia nire gogoan beti izango da...

Baiña mutila, Jonen itzaldia geldi-azo eban abade jaunak, zein da zure arazoa, ba?. Ain

pozik, alai, emen bizi ba zara, zein da zure arazoa, ba?.

Jauna, nire arazoa, nire arazoa, Irene On Emeterio ta Isabelen alaba polit, langile, zintzoa da. Nire adiskide, languntzaile benetako bat da. Biok gazteak gara, teilatu baten babespean batera bizi gara, egunero ta sarritan alkarregaz alkar-izketan gara... neska-mutil gazteak alkarregaz luzaro jardun ezker... euren adiskidetasuna sakondu, kutunagoa izatea, ez da arritzekoa..., bildurki, oben astun bat autortzen ba ebalaz bezela, Jonek abadeari iñotsan, jauna, gure adiskidetasuna be bide orretan doala ikusirik, zentzuzkoa dala uste dot ainbat-len Irenegaz dodazan arreman oneik baztertu dagoz... Irene ta Bardesi sendiari ezelako kalterik egitea ez neuke nai, gura... zorrean nagan sendi onegaz adiskidetasun zintzo, iraunkor baten jarraitu gura neuke... orregaitik bururatu dodan erabagi au, zuzen, zentzuduna dala uste dot, eta bereala betetzera saiatu bear naz. Nik jauna, ludi onetan maiteen dodazan notin, erri ta lurraldeak nire jaiotze errikoak dira. Bai, "Lurralde guztietan, Iparragirre ospetsuak iñoan lez, toki onak ba dira, baiña nire biotzak diost zoaz Euskal-Errira". Orixe ber-ber ori jazoten jat jauna, ta neure eretxi, uste, grifña, neure aita-amaren irakatsiak, nire biotz, arima, gogo osoa Urtzoka erritxura narrasten dabe.

Emen, jauna, bizi-bide ezin ohea dot, lan,

bear, neure guztokoa, irabaste txanpon politik eskuratzen dodaz, Bardesi sendian nabarki aurkitzen naz, zer geiago luditar batek eskatu lei, ba?... Eskergarri guzti oneik, nire arima, gogo ez dabe osoz betetzen... Neure bizi osoa jaiotze erritir urrun, Mirentxu nire maitea barik, nire aita-amandik aldenduta, atsekabe-gorri, ilzori iraunkor bat izango litzake.

Jauna, Martakon erritxu onetan, Bardesi sendiagandik aldenduta, bizi-bide barri bat eratu bear dot, baiña oraingoan alegorean ez, sal-erosian, garazketan. Nire burutasun asmua, dendatxu bat eratzea da, eta egia esan, orretarako berorren laguntza baliotsua izango litzaket...

Nire laguntza Jon, beti izango dozu, abadeak, Jonen izketan geldi-arazi eban. Oraintxe zeuk nai ba dozu or kale Nagusian daukadan etxe baten, bere beetxe uts bordelari gabe dago, ikustera joango gara, ta beratan zeuk nai dozuna egingo dozu. Gazte azkar, deduzko, sifis-men, fededun, zintzoa zarala argi dago, ta nik bezitzeko beste dirua daukadan ezker, etxearia zeuk ezarri, izendatuko dozu.

Mila esker jauna, Jonek abots bigun, maitekiroz, abadeari erantzun eutsan, zelan ez onartu bere oparia jauna, mila esker barriro. Berorrek nai dauanean beetxe ori ikustera joango gara.

Asti labur bat alkar-izketan jardun ondoren Abade jauna ta Jon, onen egoitz barria izango zan txokirantz abiatu ziran.

Abadeak opa eutsan beetxea urigune berezian ezarrita, edatsua bere asmakisunetarako egokia zala uste izanik, bertan une beratan alkar-eskustutuz, euren itune, ongunde itz-emon bitartez bete zan.

Biramonean Jonek, Bardesi jaunari bere burutasun, bere erabagia jakin-azo eutsan.

Jauna berorrek eta berorren sendiak nigaz izan duan adiskidetasunezko jokaera benetan eskertzekoa da. Ni berorioiekaz beti zorrean izango naz, nire gogoan beti izango dira. Gure adiskidetasun zintzo au amaibakoa izan daitela, iraunkor utsa izan daitela nai dot, eta lortu naian egunero saiaturko naz. Gure sal-erosketak, dendak, antzeko, erarakoak izan arren, berorrenzat ni burkide bat geiago ez naz ifioiz izango, zintzotasun osoz berorrieriek dagokiozan arazoan aurkituko nau. Ille onen amaieran, illaren ogetaamarrean, berorren babespen eskergarritik kanpo izango naz...

Baiña Jon, On Emeterio jaunak esan eutsan, nik eragozpenik ez dautsut ezarriko, beste alde batetik eziñekoa da, zu azke zara ta, zure irabasteak, zure dirueskuratzeak, obetu bear ba dira esan eistazu, aleginduko naz zure guraria betetzen.

Ez, ez da ori jauna, lurralde oneitan, beraz guztiz nire guztoko, maitegarriak dira, luzaro jarraitzea ez da nire nai, burutasuna. Nik neure jaiotze erri, lurraldetan aita-ama, anai-arreba ta

Mirentxu deritxon neskatil lirain polit deduzko, zintzo bat itxaroten dodaz. Eurakaz lurralde aretan nekatu, lan, negar eta barre, alaitu, bizi ta il gura dot. Zio naikorik uste dot, nire erabagia, nire errira erriratzea, aldatu-eziñekoa da. epe laburrean nire erritxu, Urtzokara itzuli ta bertan Mirenegaz ezkondu ta sendi barri bat sortzea nai dot. Orretarako alogorean baño salerosketatan dirua aurreratzeke aukera geiago izango dodala uste izanik, Martakon urian denda bat eratzea erabagi dot. Naiz eta berori ta berorren sendiagandik apur bat urrundu, eurakanango nire adiskidetasun, ta esker-ona ez da makaldu, otzituko.

Zeure naia, guraria ba da Jon, artu dozun erabagia aldatu eziñekoa ba da, aurrera, ta ifioiz nire laguntza bearrean ba zara, ba dakizu adiskide zintzo bat non dozun, On Emeterio jaunak unkiturik esan eutsan.

Arik aurrera Jon bere bizi-bide barria, bere sal-eroski tokia antolatzen saiatzen zan. Zeregin onetan On Emeteriok bere biotz ona agertu eban. Bere baimenez lantegitik kanpo, denda barrirako bearrezkoak ziran sal-eroski ta tresnak bilatzen, ordu luzeak emoten ebazan. Beste alde batetik, Jonek gabaz eta lan-orduz kanpo Bardesi jaunaren dendan luzaro jarduten ebala.

Emen dogu gure Urtzokatar mutila bere denda barriaz lanean, bearrean. Egoitz beratan Jonek bere lan-toki ta bizi-lekua eukazan.



Beetxea edatsua zan ezkerro, sute, zukalde txiki bat, garbi-dela ta lo-gela, guztiak txikiak eratu ebazan. Jon bere beetxetik kanpo gitxitan ikusten zan.

Bitartean Urtzoka erritxuan zer gertatzen zan jakin dagigun. Errufiño ta Kontxi, Gailurretxeko sendiak, albiste au, Jonek denda bat bere izenean eratu ebala artu ebenean, pozez beterik, alaitsu artu eben, eta zelan ez, Miren eta Migeltxu be euren erritar maitea amariketaratze eragin eutsan elburua oinkada-oinkada betetzen joiala ikusirik, pozez bete ziran.

Ez neutsun esaten nik, Migeltxuk Mireneri iñotsan, Jonek Ameriketari luzaro luzaro ez zala egongo!. Ikusiko dozu zelan or gurdi-bidetik Gailurretzerantz Jon eta biok mando ganean, ba da erbesteratu zanean nau joan nintzan kaiara bera agurtzera ta orain be neu izango naz berari leenengo besarkade ta agurtzea, arrera egingo dautsadana, bai, ikusiko dozu zelan pozez beterik, Errufiño ta Kontxi bere sendi, danok moltsoturik negar ta barre, alaitasun, poz utsa, izango dan jaia, aitzu eziñekoa, Jonen ingurukoen gogoan beti eukiko dogu.

Migeltxu, Migeltxu!, gertakisunak ez daiguzan aurreratu. Jon nire maiteak ondiño itxaso zabal iltzailea, besarkatu al izateko, zearkatu bear izango dau. Gure Jaun eta Jaungoikoa ta Begoñako Andra Mari Birgiñari gure auzokidetzat, otoitz egiñez, erriratze zoriontsu bat

izan dagiala eskatu bear dautsagu, Mirentxuk bere poz, alaitasuna itxurgatu iziñik, iñoan.

Gizaki, gizasemea, pozez, alaitasunez, zoriontsu izateko orritxu bat idatzita, gutun bat, zio naikorik izaten da. Urtzokan, Jonen sendi ta adiskideen artean pozez, alaitasunez, Zoriontsu, urrunki aurkitzen dan aide maite bategandik artzen dan gutunak, pozez, alaitasunez beterzen ba gaitu, an urrunki, guztiz asao aurkitzen danak, erbesteraturik, bere aita-amarren babespen gabe, errimiñak jota, bere aita-amak, bere anai-arreba noiz besarkatuko dauzan, bere jaiotze errian geratu zan neskatil gazte, lirain, matrail gorriska, ule kirruduna bere besoetan noiz mozuka izango dan, leiatsu, urduri, errira itzultzeko eguna noiz elduko dan begira dagon mutil gaztearentzat, ze unkitutze azaldu eziñekoa bere maiteen gutun bat artzean, bere eskuetan danean.

Bitartean bere zeregin, bere lantoki barrian, Jon, arduratsu gau ta egun lanean eten gabe jarduten eban. Asteaz zapzi egun baño geiago bearren egiten ebazan. Eten gabeko lan onen ondorioak argi egozan, Jonek bere diru-zorrotxua geroago ta astunagoa eukan, baiña bere diru gosea ez zan asetzen.

Jonek bere jaiotze errira itzultzeko ezarri eben epea amitzera joian, baiña Jon epe ori atse-ratzeko atxaki anbat beti aurkitzen eban. Biltokian daukadazan sal-eroski onek saltzen

dodazan egunean, nire sal-erosketak amaituko dira, bere asmua ori zan, bere baitan Jonek iñoan, baiña biltokia utsitu baño lenago barriro betetzen eban, beste salgai batzukaz betetzen eban. Gizaseme, gizonarentzat, diru gosea asetzea ez da bat be erreza, ez.

Egun baten, Martiko Andra Mari eguna zan, Martakon uriko jai nagusia, jai-eguna zan ezkerro, lan-gabeko eguna zan ezkerro, Jon uriko kaletatik zear alderrai oldozkor, ebillen. Martakon uriko liburutegi aurretik igarotean, bertan barneratu zan. Liburuak, liburutegiko idazkiak asterkatzen saiatuz, ara non "Euskotar eta Euskera" buruz idatzitako bat non aurkitzen dauan. Bere guztokoa, Jonen guztokoa zan ezkerro, Mutila bazter baten jazarri ta gozoro irakurten asi zan. Jonen ariman, Jonen biotzean liburutxu arek eraginda aldi liluragarri bat sorturik, mutila erdi sorgortuta orduak aurrera joiatzala ez zan konturatzen. Txomin Agirrerren idatzi bat irakurtean bere inkitu-aldia ekainera eldu zan. Idazki liluragarri onek olan diño:

"Euskera gaixorik dagola, ia ilean dagola. Gaixorik bai, ia ilean ez Jaungoikoari eskerrak. Baiña gaixorik ba dago, zein ez da gaixoaren erruki? Nola ez dogu euskerea babestu bear? Noizko doguz sendagarriak? Zer egiten dabe zaintzaile izeneko gizon orreik?. Nolakoa da, batez be gaixoa sendatu bearrean, geiago zauritu gura dauan sendagilea?. Zelakoa da, bere

ustez, il-zorian dagona, jo ta zapaldu gura leikean agintaria?.

Benetan arritzekoa da gure izkuntzari erbestetar gizon maltzurak egin dautsoena, baiña askoz arrigarriago da geuk, euskaldunok, egin dautsoguna, ba da geuk jardun dogu geien bat euskeraren kaltean, geuk iraundu dogu esbestetarrak baño geiago, geuk bota dogu gure espenetatik, geuk gure errietatik baso bazterrera izurriz kutxutua dagonaren gisa, bota, jaurti dogu. Bai auzoetako izkuntz apañiak ezagutzean, gure izkuntza, euskerea, narraz eta bldar iruditu dogu, ta Euskalerriko semeak euskeraz egiten, euskeraz berba egiten, lotsatu egiten gara. Ori egiten dabe, batez be ori egiten dabe, euren gurasoak goiztik gabera aberastu diran edo zerbaik ikasi daben ume doilorrak. Geurea da errua, geurea da obenik aundiena.

Euskotarrok, neure anaiak, ernaitu zaiteze ta bide barriak artu dagiguzan. Nik ba dakit edertzaleak zariela ta edonungo ederrari abegi ona egiten dautsozuela. Ordu onean izan dedilla, baiña orregaitik ez daizuela euskerea iñon ukatu, ez daizuela beste izkuntzak baño txikia-gotzat euki.

Euskalerrian jaio zarien guztiok, aundiki ta beartsu, aundikiak batez be, bere erri ta erbestean, etxe barruan eta plaza erdian, Jaungoikoagaitik euskeraz egin eizue.

Ooo euskera kutun nire izkuntza! Ez zara

iñoren lotsagarri. Iraunkorra zara Ernioko gailurrak aiña. Lerdena zara Anbotoko erpiñen irudira, garbia zara Aitzkorriko edur zuria beste, liraiña zara Aralarko aingeruaren gisa, neure zara ta maite zaitut. Zure kopeta zabalean, aintziñako jatorri onaren kera ta kutsua dauskuzu, zure sorbaldetan izkuntz-gurasoen soiñeko apaiña daroaskuzu.

Naiz ta gaur mendi baztarretan egon, zure bizitza luzean alderdi azkotan on egiña zara. Zuk emon dautsezu, beste izkuntz askori zure izatearen mendua, zure argiaren izpia, zure suaren txingarra, zure odolaren gorriunea. Izkuntz orreik arro ta gangar ba dabiltz be, beti zure zorretan egon bearkio dabe. Zuri gura dautsut eresi. Oso aurtxo nintzala, oraindik otsaratxuan nengoala, ama laztanaren aoz nire biotzean sartu ziñan eta arik aurrera nire biotzean zaitut. Ez zara niretzat egundo txiro ta itsusi. Zu zara niretzat izkuntzarik gozo, guri, mamintsu ta zoragarriena. Ondiño eze zagoz, ondiño kemena dozu, ondiño lora barriak emoten dozuz. Gure animetan zara ta gaure animetatik atarako dogu azia. Guk solo, landa, ibar, baso ta lur gustietan eraingo zaitugu. Erneko da landara barria, gure izerdiaz eta bear ba da gure odolez ba da gure odolez narotuko dogu eta geuk beste izkuntzaren erdira azalduko dogu, esanez, onela esanez, ara emen euskera, ikusi eizue zein margul dagon, begira eizue zein egoki apaindu dogun.

Ori egin ezik ez giñake seme onak izango. Gora zu, nire izkuntz zaarra!. Gora euskera maitegarria!.

Eta gure lanean diardula, iñok ezer esan eta ixilik egoteko esango baleuskigu, agindu ori da, aitz ganean dagon arranoak, arranoa dala ta besterik gabe, baso itzaleko urretxindorrari esango balio bezela.

Ixilik, itxi eizu bein zure jarduna, ixildu zaitetz.

Ixildu nedilla, erantzun leioke txoriak. Ezingo naz ixildu, berezkoa dot nire txio-txio jotea. Errekarteko iturriak bere murmurra bezela, zelaizako lorak euren usain berezkoa daben antzera; kendu euidazu nire bizia, baiña ez nire izkuntza, ba da neuri dagokion txio-txio barik, ni ez naz urretxindorra.

Era bardiñean esan daikegu euskotarrok. Jakin eizue agintariak, gure min ganera euskera berez datorkigu. Euskotarra euskera barik ez da euskotarra, eta euskotar izatea ezingo dauku iñok galazo”.

Jon idazki au irakurtea amaitu ebanean, mai ganean liburutzua alde batera itxita, bere begiratze, aditze asaotasunean, oldozkor une labur bat egon ondoren zutundurik, norabide gabe, zein egunetan ez ze ordutan bizi zan konturatu barik, alderrai uriko kaleetatik zear luzaro ibili zan. Goseak eraginda ebazan urdaileko karraskadak baretu, makaltzeko jantetxe baten,

lenengo ikusi eben lantetxean sartu ta bazkari-azkari antzekoa jan eban. Egun orretan abade jaunaren maikidea bazkalorduan ez zan izan.

Martakon uriko kaleetatik zear Jon arrasti osoan pentsakor, oldozkor izan zan. Bein eta barriro bere baitari itauntzen eutsan.

Zer egiten dozu emen Jon?. Emen atzerrian zeure jaiotze erritik asao, zer egiten dozu? Diru, txanpon batzuen truke, ordez, zeure aita-amak, zeure sendi, zeure erritar maiteak, zeure aberria baztertu dozu. Zure aita-amanako, Mirentxu zure maiteaganako dozun kutuntasuna diru apur bategaitik trukatu dozu?.

Eurak, zure aita-amak, Mirentxuk, zure adiskideak, zure erritarrak Migeltxu aurretik dala, bear zaitue, eta zuk iñok baño geiago eurak bear dozuz. Zure aberria, zer, zure aberria!. Guzti oneik aberria osotzen dabe, lana, oiturak, izkuntza, euskerea, kide, tarteko izanik. Zuk euran alde emen zer egiten dozu?. Laga, itxi eizu berton zure diru-zaletasun ori, ta bereala zeure errira itzuli zaitetz.

Unkiturik, biotz-bera, Jon abade jaunaren etxerantz abiatu zan. Eleizako kanpadorrean arrastotoitzetara deika ziran, entzuten ziran, eta Jon abadenerantz, abadearen egoitzara joan bearrean, eleizarako bidea, kalea obeto esanda, artu eban.

Orain bai, Jonek sakelean ez ba zan be, bere gogo, bere adimenean erriratzeko itzuli-txartela ba eban. Jonek erriratzea bere jaiotze errira,

jaiotze ibarrera itzultzeko erabagia artu eban, eta Jonek erabagi bat artzen ebanean, aldatu eziñeko erabagia izaten zan.

Lenen-lenen abade jaunari nire txede, burubidea autortuko dautsat, eta biar astirik galdu barik emen daukadazan sal-eroski, tresna, ondasun guztiak saltzeko gertaerak egiten saiatuko naz. Premiazkoa dot ainbat lasterren nire errira itzultea...

Iluntze aretako Abade-gaztearen alkar-izketa mamintsu ta luzea izan zan.

Ondo be ondo egiten dozu zure errira itzul-teaz. Aita-ama, sendiaren berotasun maitekorra zenbatu eziñekoa da, gazte, abade jaunak mutil-lari esan eutsan. Zure aita-ama, zure sendi, Mirentxu zure maitea, erritar guztizak zure begira, itxaroten dira. Zure aberrian dozuz zoriontsu egingo zaitun gauza guztiak. Dirua... dirua... bearrezkoa da bai, bizitzeko bearrezkoa da... baiña ez da zorion-utsa. Sendia... Aberria... orreik bai dira zorioegileak... eurak maitatzen dauan biztanlea zoriontsua izango da..., abade jaunak iñotsan.

Jonen gogo, animen, biotza erri-minez jota ba zan, abade jaunak dirautsona entzunik, erriratzeko eban gurari bizi-bizia aundiagotzen joakon.

Bereala nire dendako salgai, tresna guztiak saldu bear dodaz, eta Gailurretze nire jaiotze basetxera itzuli, iñoan Jonek.

Zure denda, tresna ta gaiñerako ondasun guztiak, baleiteke Bardesi jaunak erostea, abadeak iñotsan. Beste iñori opa baño leen, berari On Emeteriori opa bear dautsazuz, uste dot nik. Beraganatu zaitetz eta zure amesa, zure naia azaldu eiozu.

Jonek abade jaunaren aolku, onuak, ontzat artzen ebazan, baita be eskertu, eta egia esan gaien-bat guztiz onuragarriak izaten jakozan. Oraingoan be Jonek abadeak esan eutsona egin eban. Biramonean leenengo orduan mando ganean, Bardesi jaunaren egoitzarantz abiatu-rik, zorrotxu baten eroan giar, lukinka apur bat jan eta ur zurrutada batzuk eginda, arrasti erdian On Emeterio jaunaren idaz-gelan aurkeztuta, agurtu eban.

Egun-on On Emeterio, eguraldi ederra dogu gaur.

Baita zeuri be Jon. Egutaro ederra da, ta barri onak ba doguz ondiño ederragoa izango da, Bardesi jaunak erantzun eutsan.

Onak edo txar, gaizkiak, barri, albisteak, beti egoten dira, Jonek erantzun, jarraian iñotsola.

Jauna, neure errira itzultea erabagi dot. Lurralde onetan atsegintsu, posik bizi naz, baiña erriratzea premiñazko dot. Nire aita-ama, sendi, nire maite Mirentxuk eraukanatu, erakarrri egiten nabe, Euskotarra erbestean, arrotzerrian, errimiñez jota izaten dala diñoenean,

zuzen izaten dirala uste dot, beintzat gaur egun nire egoera olan da.

Orregaitik biltokian daukadazan salgai guztiak, dendako tresnak, ondasun guztiak lenbait len saltzeko asmua dot. Nire erabagiaren barria, jauna, barorrek eta Martakoneko abade jaunak On Andresek izan ezik iñok ez daki. Berorren onu, aolkuak beti onuragarriak izan jataz, eta oraingoan be nire ondasun, denda, tresna guztien salketa buruz, berorren aolkuak itxaroten dodaz.

Nigan dozun uste-on osogaitik, eskertzen zaitut Jon, eta zure denda, salgai, tresnak eta gaiñerako ondasunak merke-salduak ez dira izango, sal-neurri egokian baño, Bardesi jaunak esan eutsan.

Alkar-izketa labur baten ondoren, On Emeteriok Joneri esan eutsan.

Ara Jon, zure denda, tresna ta ondasun guztiak, neuk erosiko dautsudaz, neu eurakaz geratuko naz. Orretarako bearrezkoa dogu ondasu orrein bilduma, imitorio bat zeuk egitea. Zerrenda baten bildu eizuz bakoitzaren kopuru ta salneurri egokia deritxazuna ezarrita. Zuzenez Urtzokatarra izendatu zenduzan garazketak, izen bardiñagaz zeure oroiz jardungo dabe. Semetariko bat, neure semetariko bat, euren gidari, zuzendaria izango da.

Mila eskér jauna. Berorrek esandakoa bete-bete egingo dot, eta datorren Igandean zeaz-

tasun guztiakaz emen izango naz. Orain bereala urten bear dot, gaba ilundu baño leenago Martakonera itzuli nai dot eta.

Jonen poza, mando ganean bere dendarantz joiala Jonen poza, alaitasun eta esker ona azaldu eziñekoak ziran. Bere siñismen, bere fede bero, sutsuan, gertaera au be Begoñako Andra Mari Birgiñaren eragipena zala, uste eban, uste ez, ziur zan.

Biramonean Jon bere ondasunen bilduma, imitorioa egiten saiatu zan ezkerro, sal-erosketarik ez eban egin. Larunbat eguerdirako bere lana Jonek amaituta eban ezkerro, arrasti osoa abade jauna ta beste bere lagun batzukaz emon eban.

Igande goizean goiztar, egun-sentiaz jagirik Amoztka urirantz, bertan amaikatako Mezea entzuteko asmuz mando ganean abiatu rik, Jon alai, pozik agertzen zan. Erriratze, bere jaiotz errira joateko eguna ur zala uste izanik, Jonek bere burutapen, bere amesetatan Urtzoka arane ko lurraldeak bere adimen begietan iñoizkorik eder, polit ikusten ebazan. Eleizako kanpaien doiñu pozgarria belarri-barneraturik, bere biotzean azaldu eziñeko eragin atsegingarria sortu. Une aretan Jon zorion-utsa zan.

Amoztako urian Jonek asmau eban lez amaikatako Mezea entzun ondoren, gure mutila Bardesi jaunaren egoitzarantz joiala kalean Irene On Emeterion alabea topaturik beragaz

alkar-izketan Jonek neskatilatxuari bere bidaliaren zio bakarra bere aitagaz, Bardesi jaunagaz egotea zala adierazo eutsan.

Neska-mutil gazte oneik biak batera etxean sartuta, Jonek Bardesi jauna aurretik zala agurtu ondoren, etxeko nagusiari esan eutsan.

Jauna, barriro be berorren aurrera onu, aolkuaren bila natorko. Eskergarri dodazan lurralde oneitarantz, nire etxe, erritik urtekeran barriro etxeratzeko jarri neban epea amaitu jat jauna. Premiñazko dot lurralde onetan eskuratu dodazan ondasunak, denda, sal-eroski, gausa guztiak ainbar-leen saltzea ta bereala nire etxera itzuli.

Joan dan egunean berorrek agindutako eskaria betetuz, ementxe orri onetan daukadaz nire dendako tresna ta sal-eroskien zerrenda euren sal-neurriakaz, eta guztiz arauzkoak izango jakozala, uste dot, Jonek idatzia emoten eutso-la, esan eban.

On Emeteriok, idatzia gaiñetik, azaletik begiratzuz eta bere idaz-gelara sartzeko Joneri eskatuz, unetxu bat geroago garazlari biak esku-tinka, bostekoa emonez, garatza sinatu eben. Jonen lur-ondasun eta esku-ondasunak On Emeterion jabespean geratu ziran.

Orain bai, orain Jon erriratzeko gertu egoan, eta unetxu bat be galdu barik, berak ain leiatsu, kezkatu itxaroten eba gertaera zoragarri orren abiamenatan saiatzen zan.

Amar egun barru Jon bere errira itzuliko eban itxasontzia, uri-nagusiko kaian itxaroten zan. Amar egun orreik Jonentzat bat be laburrak ez ziran izan, baiña azkenean, Ameriketan izan ebazan lagun eta adiskide guztiak, euren artean zelan ez, Bardesi sendi ta Martakongo abade jauna izanik agurtu ondoren, itxas zaba-lean izan zan.

Itxas-aldia guztiz baketsu, itxaso bare, ezelako ekaitz gabe, aize egokiaz baliotuz, itxason-tziak itxas-gizonak uste izan eben baño leenago itxas zabala zearkatu eban.

Bere errirantz, Urtzoka bere jaiotze erri maitearantz itxasontzian joiala, Jonen gogo, adimenean naspildurik, moltsotuta bere aita-amak, anai-arreba maiteak, atsegingarri jakozan erritar, lagunak, eta zelan ez Migeltxu bere adiskide zintzoa ta Mirentxu, ain maite eban neskatil matrail gorritzka, polit, ederra, agertzen jakozan, batzutan euren etxe ta soloetan, beste batzutan jaiegunetan eleizpean mezea entzun ondoren alkar-izketa, txantxetan, eta iturritxua, San Juan iturria Mirentxugaz izan ebazan maitemendurizko alkar-izketa, besarkada, muzu, aldi eztitsuen aitorle. Baita be bere gogoketatan, Mirentxugaz topo egiteko joanez, barruti, landa orlegi, ezean sortu eban bide-siorr gogorazlea, argi agertzen zan, baiña ez, gaur egun, aldi aretan Bekotxeko lantzarreko bide- laburretik iturrira bidegilerik ez zan

joaten, orren ondorioz bedarra, belarra, bideaz jabetu zan...

Jon, gogoketa, oldozmen oneitan sorgorturik, atsegin osoz, poz-alaitasun ekaiñean, bere lurralde, arraneko aitz-erpiñak noiz ikusiko urduri, zain egoan.

Ontzi-bizkarrean, Jonek ontzigainean egunsenti ta iluntzean asti luzeak emoten ebazan. Goikomendi gailurretik eguzkiak bere argi gorritzak aran, ibar lurraldeak bizkortuz, oskorri-aldia, eta ilun-nabarrean arrast-gorri ta izpi orlegia, bere adimenean argi-argi ikusten ziran ikuspegi oneik zoragarriak ba ziran, ostagi oneik itxaso zabalean begiztatuz, ondiño zoragarri, liluragarriagoak, eta euren aurrean, eurak begiraten Jon unkiturik, konkortuta luzaro ames-aldi zoragarrian konkorturik zan.

Ludi onetan epe guztiak betetzen dira ta, itxasontzia kaiara urbildu, urreratzeko epea be, eldu zan.

Artero aitatu dogun gogoketa-aldia zoragarria izan ba zan, Jonek bere aberri maitearen mendi, baso, ondartza, berantzat ludi onetako polit, ederren ziranak ikusi ebazanean, biotzaren kaupadak bizkorturik, zoramen ekaiñean, lertu, eztanda egiteko une zoragarrian, aurkitzen zan.

Une aretan, itxas-ontzi bare-bare itxas zaba-lean bere errirantz eroala, Jonek ames-aldian bere soin, gorputzean sendi, aide, erritarren

beso indartsuen besarkada bero, maitegarriak nabaritzen ebazan. Bere aita-ama ta Mirentxun muzu, besarkada liluragarriak zelakoak iruditzen jakozan azaltzeko, parkatu irakurle, ez dot itzik.

Itxasontzia kaiaratuta, Jonek, ain urduri, leiatsu itxaroten eban lurra zapaldu, oinperatu ebanean, an ziran, kaian ziran bere anai gazteena ta Migeltxu begira ikusten ebana sifñistu eziñik, poz-alaitasun ekainean.

Irukotea alkar-besarkatuta, unkebera-aldi zoragrri aretan, une luzetxu baten, gure mutilak izan eben ixil-une ori Migeltxuk eten eban esanez.

Ameriketan ondo izan zaralaren zantzu argia zure aurpegia da, Jon. Joan zintzanean, erbesterratu zintzanean baño be gazteago zatoz, gaateagotuta zara.

Zuok be, anai ta adiskidea barriro besarkaturik, txarto, gaizki izan zariela ez da antzik. Errian aita-ama, sendia, Mirentxu, zelan? Ze albiste, barri onik ba dago?, Jonek erantzun eutsen.

Gure erri-aldea, ba dakizu Jon, baketsu, nabar-gabedun utsa da. Sendia, Mirentxu tarteko izanik osasuntsu ta beraz zure etxeratzeaz pozez, guztiz zoratuta da. Errian azken asteetako alkar-izketa gaia zure etorrera da, arrera, abegi, sekulakoa izango dozu, Migeltxuk iñotsan, zure bide-zorroak artuta goazen Ameri-

ketarantz joan zintzanean egon gintzan ostae-txera, bertan dagoz iru mando errira zure zorrotxuak garraitatuko dabezenak.

Zer Jon, diru-etxe anbat Ameriketan asaldatu dozu ala?, bere lagunaren zorrotariko bat eskuan artuta, astu egoala nabariturik, Migeltxuk jarraitu eban.

Ez ba, or itxas zabalaena arrantza-sare bat uretara jaurti neban eta egoluze ordezturako txanponak lortu nebazan, Jonek bare txantzelari erantzun eutsan.

Bereala ostaetxera elduta, bertan, edantegian koputxu bat jan ondoren, mando ganean esku-zorroak zamaturik, gure mutilak alai, pozez, txantxetan, oinkada bizkorrean, ainbat leen eldu naian, etxeratu naian, Urtzokarantz abiatu ziran.

Udabarri aurreko egun argi, aguzkitsu, alai. Gure irukotea bide-ziorretatik mediskak igon, aran zelaiak zearkatuz, Jonen jaiotze errirantz urreratzen joian. Bide bazterretan aurkitzen ziran zugaitz, pago, gaztain, areitz, artegietan, inguru areitako txori guztiak deituak izan ba ziran bezela abeslari, euren txio txio eztitsuakaz Jon unkituz, agurtzen eben.

Urtzoka aran, ibar, eze, orlegi, edatsua zearkatzen daben errekatxuetako urak, eurak be iñoiz baño de saltokari, maitasunezko mur-mut abestiaz. Txoritxuen txio-txio alaiak, txan-



txarraren abesti, ozen eta errekatxuen mar-mar otsak, Joneri arrera maitagarria egiñez, abebatz sekulakoa osotzen eben.

Ikuspegi zoragarri onen aurrean, Jon oldozkor une labur baten ixil-ixilik geratu zan, Bereala bidalian arinka jarraituz, bere bidegilekidei iñotsen.

Gure erria, Euskalerrria, benetan da polit, eder, zoragarria. Lurralde oneik erbestera nintzanean baño orain askoz be polit, ederragoak iruditen jataz. Bear ba da zuek ulertzea ez da izango erreza, baiña an urrunki, asao, erbestean lurralde oneik nire adimeneko begiakaz begirata, askoz be polit, eder, maitagarriagoak iruditen jatazan. Sorgoturik, asaotasunetik nire baitan-begiakaz lurralde oneik ikusirik, nire gogo, biotzean sentitzen neban unkitze izugarria azaldu eziñekoa da. Baiña goazen aurrera, Jonek iñoan, gertakisun oneik eta Ameriketaz jazorikoaz arduratzeko astia gero izango dogu ta, Jonek iñoan.

Bai goazen arinka aurrera. Ala Kanela bizkortu zure iztar zaar orreik, Gailuretxen gure begira urduri, arduratsu dagoz eta, Migeltxuk mando-lerroko aberea, mando-gidaria akuluturik, oiuka iñotsan.

Amabi-amabietan, eguerdiko amabiak eusko baseritarrentzat ordu garrantzitsua da, amabiezki ordua. Gure irukotea gaztanadi kerizpetzu, iturritxu baten alboan, mandoei eskukada

artagaro batzuk jaten emon ondoren, jazarri ziran. Oiturazko otoitza eginda, Migeltxuk, Kontxik, Gailurretxeko Kontxik arteroko egunean zorrotxu baten jarri eutsean oilosko eder eta lukinka, txorixo batzuk, ogi zatiakaz janda, ta txakolin zurrutada gozoakaz, egun aretako bazkal atasea bazterturik, barriro unetxu bat be galdu gabe, euren bidean izan ziran.

Urtzoka erritxura eltzeke bitartea naiko luzea zan, eta mutilak gaba guztiz ilundu baño leenago eltzea nai eban. Naizta diru-zorroak zaintzeko, jagoteko, mutilak ondo gertuta joan, bakoitzak bere eiza-izkilua ta zastakai eder bana sorbaldataatik dindilizka eroan, errira ilundu baño leenago eltzea nai eben.

Mando ta mutilak arinka joiazan, Urtzoka erria inguratzen eban mendiskatariko bat erdigaiñeratu, erriko eleizako dorrea gailurtzen dauan kurutzea ikusirik, Jon unkituta, begiak negar-malkoz ezoturik une labur baten sorgortuta geratuz, aldizka negarrez iñoala.

Bedeinkatua izan bedi Jauna, nire erria barriro oinperatu, ikustea zilegiten daustasulako!

Gaba iluna zan, gure irukotea aran gora estarta gora Gailuretxe basetxera urreratuz, bertako txakurra auzika, zaunka asi baiña beingoan ixiltzen zala nabaritzuz, Kontxi konturatu zan nortzuk ziran basetxerantz urbiltzen ziranak, eta atarirantz abiatu, oiuka iñoan.

Eurek dira! Orrexek dira! Nire semea maitea, luzaro erbesteratua izan dana da!

Zure adimen ameslariaz irakurle, Gailurretxe atarian eta gero sute, sukaldean, zer jazo zan, ango egintza, ekitaldi zoragarria eizu. Besarkada, musu, negar eta barre, poz-alaitasunak eraginda negar-malkoak matrail bera soñekoak ezotuz, urte luzeetan makalduta izan ziran biotz-ertsatuak euren azkatasuna alai, agartzen eben.

Gailurretxeke sendia, Migeltxu tartean zala, baretu ziranean, euren gogo, biotzakaz baretasuna jabetu zanean, Errementariñeko sendia agurtzen joan nai ebal Jonek, adierazo eutsen, eta bereala Mirentxu bere maitea besarkatzera abiatu, oinkada leiatsu, ariñean Errementariñe basetxeke atarian izan zan.

Miren eta Jonen alkar-aurkitzea azaldu-gaitz da, unkiturik besarkada luzean ixil ixilik iraunduz euren alkarganako maitasun zintzoa agertzen eben.

Errementariñean ordu pare bat alkar-izketan Pruden errementari ta sendiagaz egon ondoren, Jon bere egoitz, Gailurretxera, itzuli zan, bere aita-ama ta anai-arrebakana itzuli.

Biramona beste edozein egun bezelakoa, eguzkiak Goikomendi tontorra gaiñeratuz bere izpi alai, disdiratsu epelak, Urtzokatarrei bilantzen eutsezan. Baserritar andra-gizonak euren eguneroko lanetan saiatur.

Ostera egun orretan errian, Urtzokan, zerbait

berezi, oituraz-kanpoko nabaritzen zan. Erritar, auzokide guztiak, Jon maite eben, eta baserritar, nekazari, zintzo areik, luzaro galduztat izan eben adiskidea euren artean izateaz, sentitzen eben alaitasun, poza, euren alkar-izketa, aurpegi irribarretsuetan agertzen eben.

Bitartean Migeltxu bere oiturazko lanari jarraituz, iñoren lepotik, lanik egin barik bizitza bere ardura bakarra zala, poz-alai, beti lez txantxelari, kezka-gabe eroan bizia.

Ostera Jon, bizi bide barri bateri asiera emonez, eta sendi barri bat sortzeari dagokiozan arazoak dirala ta, lanean eten-gabe ebilen. Urtzoka inguruko salgai ziran lur-alper, lur-gorri, iñoiz landubako lur sasiz eta bedar-zaar beterik ziran lurrak erosi, eta lurbarriak eratzen asteak emoten ebazan.

Gailurretxe, bere jaiotze baserria palda urrikoa zan ezker, Jonek erositako lur gizalan batzuk Errufiño ta Kontxi, bere aita-amaren ize-nean ziurgaituak izango ziran.

Errementariñe ta Gailurretxeke andra-gizonak, Jon eta Mirentxuren ezkontza gertaketatan arduetsu ziran. Euren jantzi, apaingarriak, ezkontz-jai, jantrope, egite gogaingarri onetara deituak izendatu eta abar, buru-auzte benetakoa, baztertu eziña.

Ezkontz-prestaketak aurrera joiazan, Ezkontza Jon Deunaren egunean, Ekain 24'an Jon eta Mirentxu ezkonduko ziran.

Oiturazko ezkontz-deiak eginda, gure biko-teak ain urduri itxaroten eben egun zoragarria eldu jaken. Ezkai-meza erriko abesbatzar baten laguntzaz guztiz alai, atsegintsu. Gailurretxe ta Errementariñeko sendiak, urbileneko aide, etxearteko adiskide batzuk, euren artean, zelan ez, Migeltxu zala, Jon eta Mirentxun ezkontzea, betirako alkartzea, aundikeri gabe, apaltasun osoz, izan zan.

Jantrope, bazkal-orduan txantxetarik ez zala izan esatea, Migeltxu gertaera onetan maikidea ez zala izan esatea da, ta ori ez da olan, Jai onetan Migeltxu aintzindari berezienatariko bat izan zan, bere txantxa, urtekera barregarriak, batzar eta jai-aldietan alaitasunaren bidaltzaile eskerkorrak dira.

Ara emen beranatariko txantxa bat, Migeltxun txantxa barre-sortzaile bat.

Aditu eizu Mirentxu, arreta andiz entzun eistazu Jon, Migeltxuk bere adiskide ezkonbarriei iñotsen.

Bekoerrotako Asentzio ta Erramona seme bakarra Peio ta Antzeguko Lukas ta Agustiniñen alaba zaarrena ezkondu ziranean, oiturazko ezti-aldia emoten Urinagusira joatea erabagi eben.

Aukeratu eben, euren bidali egiteko aukeratu eben urira joateko, trenez mendiska bat zearkatzeako men-zulo labur bat igaro bear zan. Sugurdi-gelan ezkon-barriakaz beste iru edo lau bidegile be joiazan.

Urinagusira eldu ta ostaetxean afaltzea amaitu ondoren alkar-izketan zirala, Peiok bere andra gazteari iñotsan.

Nire maitea, Su-gurdi, trenean, gentozala zearkatu genduan men-zuloaz gogoratzen zara?. Iluntasun aretan besarkatu ta muzu bat zuri emoteko tentaldi, gurari bizi-bizia izan neban, osta ostaz nire egarria eutsi al izan neban.

Zer diñostazu, zu ez zintzan izan ala?, andra tolesgabeak erantzun eutsan.

N ire adiskide maiteaok, Kontzuz ibili zaitezze! Uri-nagusietan jasekoz jantzita, arlote geiegi alperkeri ta limurkeriz, bizi dira. Migeltxuk bere itzaldia amaitu eban.

Baiña ez, Mirentxu ta Jonek euren ezti-aldi bidalian ez eben izan ezelako okerkeri, ezbearrik, zoriontsu euren errira itzuli ta bizi-bide barri bateri gogo, adoretzu asiera emoteko, gertu egozan...

Bizitzan ordularia gelditzen ez dan ezkerro, igaran-aldetik orain-aldira ta emendik geroaldira, beingo baten izaten da ta, Jon eta Mirenen bizitza eredutasun osoz jarraituz, iru seme-alaba, mutil bi ta neskatil bat, ebesan. Mutilak Osagile ta Lege-gizontza ikasketak eginda, uri-nagusian euren bizi-bide ta egoitza jarri eben. Sarritan Urtzokara euren aita-amak eta sendia ikustera etorten ziran, ezitze deduzko euren zorrazletatik etorkiena.

Errufiño, Kontxi, gizaldi aretako beste erritar geienak, ludi, mundu, onetako atasak baztertu ebezan, baiña ez zaarrak uts-utsean, soilki, eriotzeak eguntegiaz ez dau arremarik onek eta, gazte ta adineko batzuk be aldi onetan Urtzokatarren artean ez ziaren aurkitzen, eurentariko bat Migeltxu izanik.

Migeltxu gaixo zital batek jota, gaixoak danak dirak zitalak, gizon gaztea ondiño, berrogeta bost urteaz, ogean egoan. Osagileak alegin guztiak gaisoa sendatzeko egin arren, gure txantxularia geroago ta gaizkiago aurkitzen zan.

Erritarrak, bere auzokideak, Migeltxu ez eben aitzuta, norbait ikustaldi bat egitera joanda gaisoaren alboan izaten zan. Batez be erriko abade jauna egunero Migeltxu etzanda egoan oge buruan goiz eta arrasti ikusten zan.

Aurrerago aitatu dogun bezela, Migeltxu ez zan eleiztarra, bere siñismen, fededuna ba zan, baiña fede otsduna. Eleizkisin berezi, baten, ezkontza edo iletatan izan ezik, Migeltxuk eleizpea ez eban oinperatzen.

Migeltxun egunak zenbatuak zirala, abade jauna jakitun zan ezker, gaisoa autortu ta Jauna artu egian naian sekulako alegiñak egiten ebazan.

Egun baten abadea bere alegiñak egizko ondorerik ez ebela ikusirik, etsi etsi eginda, gaisoaren iztarrak ukututa, Migeltxuri esan eutsan.

Ara Migeltxu ba, iztarrak be otsituten asi dira ta... Jauna, Migeltxuk, abadearen esaldia

geldi-azo eutsan, nire iztarraren ardurarik ez bedi izan berorrek, esanak egiak ba dira leku onera doaz orrek berotzeko.

Migeltxu bere azken arnasa arte txantxelari. Migeltxun azkenengo esaldi barregarria au izan zan.

Idazti onen azkenera irakurle eldu gara. Garaio baño galtzu geiagodun idazkia, liburua. Baiño soiñeko, jantzi, apaingarriak gizakia gorezten, aunditzen, ez daben bezela, egikisun deduzko, ontasun, maitedunak baño, liburuetan be, itz, berba, esaldi iztun, eleder, polit entzungarriak izango dira, baiña esannai sakon, bide zuzen, bidezkozik gizartea gidaritzaille zintzo dauan liburua, txalogarria benetan deritxat, nire liburutxu onek, ez bata ez bestea ez dau izango, baiña bai euskera gure izkuntza, ta batez be Bizkaiera, gorraldu, babestu, zabaltzeko nai, gurari bizi-bizia.

Aitatu dogun Txomin Agirren itzaldia, ta idazle ospetsu aren guraria oso-osoan bete daitela, liburu onen esan-nai, ondorea da.

Egun anbatan Euskotar guztiak, andragizon, gazte ta zaarrak, beste ele bat ezeze, izkuntz guztiak dira txalogarriak, euskera dabela euren eguneroko izkuntz berezia liburu onen egileak esan al izango ba leu...

AAA ZE AMES ZORAGARRIA!